

65

3 euro • 2002ko OTSAILA euskal heziketarako aldizkaria

hh

hik hasi

ELKARRIZKETA: HEZKUNTZAKO
GIZARTE ERAGILEEN BILGUNEA
• TEKNOLOGIA BERRIAK • TALDE
KOOPERATIBOEN LANA • MARI
CARME BOQUÉ: GATAZKAK



GATA

Euskal Girotze Barnetegiak

Euskaraz bizitzeko



gaia

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Ikasle asko dira ikasturtean zehar EAEko barnetegietara joaten direnak. Astebeteko egonaldian euskaraz hitz egin dezaten ahalegintzen dira hango begiraleak eta irakasleak. Ikasleen egunerokotasunetik at dagoen ingurune berrian, euskaraz bizi daitekeela konturagaraztea da helburua.



elkarrizketa

BILGUNEAK

Hezkuntzako Gizarte Eragileen BILGUNEAKO kideekin hezkuntzaren kalitatea eta PPren Kalitatearen Legea izan ditugu hizpide

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

EUSKAL GIROTZE BARNETEGIAK

Euskaraz bizitzeko
Segurako barnetegia, Muskizko ikastolako esperientzia

16 elkarrizketa
BILGUNEAK

24 teknologia berriak
Telebistaren erabilera hezkuntzan
Iker Laskibar

26 esperientzia
Talde kooperatiboen lana ingurunearen ezagutza arloan
Kamino Etxague

28 ekarpena
Haur Hezkuntzako lehen zikloaren Arautze Dekretua EAEn
Patxi Coira

30 elkarrizketa
Mari Carme Boqué
Gatazkak hezkuntzan


33 berriak

41 eskolako zertzeladak historian
Behartsuen unibertsitatea: arte eta lanbide eskolak Euskal Herrian
Pauli Dávila

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 37.14.08

Fax: 943/ 37.21.54. Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Koordinatzailea: Joxe Mari Auzmendi Erredakzio burua; Ainhoa Aziproz Erredakzio batzordea: Mikel Estarba, Arantxa Goiburu, Mari Kamen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Imanol Agirre, Abel Ariznabarreta, Bego a Bilbao, Marian Bilbao, Felix Basurko, Xabier Isasi, Irene Lopez-Go i, Izaskun Madariaga, Kepa Perez Urza, Lore Erriondo, Idoia Fernandez, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Ota o eta Pruden Sodupe. Diseinua: TRAM Grafik Maketazio, aurreinpresioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: Lemoako Juan B. Eguskiza Meabe ikastetxeeko ikasleak Segurako Euskal Girotze Barnetegian (Hik Hasi).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak Onetsia 2002 /I/31 . Kopurua: 3.500 ale
hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz baliu zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke.
hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.



hik hasik

euskal hezitzaileen harpidetza behar du



30 euro urtean

10 aldizkari eta prezio bereziak topaketetan eta argitaratzen ditugun gainontzeko materialetan

Zure parte-hartzea
ezinbestekoa zaigu

harpide zaitetz!

hik hasiren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale
eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoaz

Izena.....1. Deitura.....

2. DeituraTel.:.....

HelbideaPosta Kodea.....

Herria.....Herrialdea.....

Ikastetxea.....Herria.....

IFZ-NAN

Aurrezki Kutxa edo Bankua

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**HARPIDETZA
SARIAK**
(BEZ barne)

30 euro

Hego Euskal Herria
5.000 pezeta
Ipar Euskal Herria
200 libera

hik hasi

Euskal
heziketarako
aldizkaria

Errekalde hiribidea, 59
Aguila eraikina 1. solairua
20.018 DONOSTIA.

GIPUZKOA

Tel: 943/ 37 14 08

Faxa: 943/ 37 21 54

editoriala

otsaila

Hezkuntzaren kalitatea



Ikastetxe batentzat kalitatea ez al da, bada, erabakitzen duen Hezkuntza Proiektua eta lortzen duen emaitzaren artean koherentzia egotea?

Kalitatea zer den jakiteko hiztegi entziklopedikoan begiraten badugu zera dio: *zerbaiten edo norbaiten izaera osatzen duten ezaugarri-multzoa.*

Guk, era praktikora joz, *ikastetxe batek erabakitzen duen hezkuntza proiektua betetzea* bezala uler genezake.

Ez al da klabeetako bat hezkuntza proiektua nola egiten den? Baina, ezer baino lehen, zer ulertzen dugun hezkuntzaz?

Batzuentzat ezagutza transmititzeko tresna besterik ez da hezkuntza. Horientzat ezagutza ongi definitzean eta era egokian transmititzean datza lana. Kasu horietan, kalitatea ezagutzen jasoketak neurtzen du. Irakatsitakoaren eta ikasitakoaren artean dagoen erlazioa neurtuko du kalitatea.

Beste batzuentzat ezagutza ekoiztu eta eraikitzeke ahalbideak sortzea da hezkuntza. Eta ahalegin handia bada ere, horretan geratzen da.

Badira ausartagoak direnak, hezkuntzari zentzu globala ematen ahalegintzen direnak eta euren hezkuntza ildoa ikaslea pertsona integrala izan dadin antolatzen dutenak.

Antolatu badiogu, antolaketak duen garrantzia azpimarratu nahi dugulako da. Noski, beti ere antolaketa eta egituraketa horretan eskola komunitateko alde guztiak kontuan hartzen direlarik. Hots, ikasleen beharrak, interesak, ikas-nahiak eta adin bakoitzean dagokion parte-hartzea jasotzen duen antolaketa. Irakasleak eta bertan lan egiten duten guztien parte-hartzea bermatzen duena, horien paper dinamizatzaile eta bultzatzaile nagusia errespetatzen duena. Gurasoen nahiak eta espektatibak bideratzen ahalegintzen dena, horretarako, euren parte-hartzea erraztu eta errespetatzen duena. Eta nola ez, hezkuntzaren garapenean interesa duten guztien parte-hartzea errazten duena: erakunde publikoak,

elkarte pribatuak, pertsona konkretuak eta abar.

Antolaketa parte-hartzaileak berebiziko garrantzia du Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua zehazterakoan. Horrek berak denon proiektua dela sentiaraztea dakar. Horrela, inguruarekin lotura izaten lagunduko du eta kideen ilusio, espektatiba, amets eta helburuak lortzen lagun dezake.

Zehaztutako proiektuaren dinamizatzaile nagusiak profesionalak izaki, horien egonkortasuna eta zentroarekiko atxikipenak ezinbesteko garrantzia du proiektua gauza dadin.

Administrazioen erantzukizuna ere beharrezkoa izango da bitartekoak eskuratzeko orduan, eta emaitzak eskolako komunitate guztiaren asebetetzea lortzeko ahaleginean.

Asebetetzea, hau da, ezarritako helburuen eta horien lorpenen arteko koherentzia izan al daiteke ahopean da bilgun hezkuntzaren kalitatea?

kronika

Euskarazko irakaskuntzaren eskaria gero eta handiagoa da Bidarten. Hori islatzen dute Bidarteko Herriko Etxeak gurasoen artean egin dituen bi inkestek. Baiona-Angelu-Miarritzen (BAM) bezala, Bidarten ere euskararen aldeko jarrera nagusitu da gurasoen artean. Herriko Etxeak irailean egin zuen lehen inkestan herriko eskolako gurasoen iritzia jasozen. %40k ama eskolatik hasita gela elebidunak sortzearen alde zeudela adierazi zuen. Bigarren inkestan besoetako haurren gurasoei galdegin zitzaion, eta %56k haurtzaindegi elebidunak nahi zituztela erran zuen. Guztira 77 erantzun bildu zituen Herriko Etxeak, eta horietatik 43 elebitasunaren aldekoak ziren. Horrenbestez, eskaera handituz doala ikusita, Herriko Etxeak euskararen erabilera sustatuko duten ekimenak jarriko ditu abian. Hobeki hautetsi taldeak ere hitzetik ekintzara igarotzeko unea iritsi dela dio.



Ikasgu Nagusia eratu dute euskal irakaskuntzako zenbait eragilek

Euskal Herriko Ikastolen Elkarteak, Partaidek, AEKk, UEUK eta EMUNek Ikasgu Nagusia sortu dute. Hezkuntzako kooperatiba mistoa da berau eta partaide diren elkarten trebakuntza beharrezko asetzea du helburu nagusizat.

Ikasgu Nagusiaren ezaugarrien artean izaera euskaldunarena dago. Erakunde euskalduna da, Euskal Herriko gizartearen garapena bilatzen duena, eta hizkuntzaren normalizazioa eta kultura helburu dituena. Bigarrenik, erakunde berritzaile eta malgu da, eraldatzailea eta bultzatzailea. Egungo goi mailako trebakuntza beharrei erantzuteko egokitu da, bai eta etorkizunean sor litezkeenei erantzuteko ere. Hirugarren ezaugarria elkarlana da, hots, administrazioarekin eta hezkuntzako zein gizarteko beste erakun-

deekin elkarlanean arituko da. Ikasle eta irakasleen harremanari dagokionez, tipologia zabal eta anitzean oinarritua da. Eta etengabeko hobekuntza prozesuak garatuko ditu kalitatea xedez harturik.

Ikasgu Nagusia sortzeko arrazoia beharra izan da. Proiektuaren sortzaileek argi ikusi dute orain arte egindako ekarpenek jarraipena behar dutela, hau da, euskararen normalizazioak unibertsitate mailako prestakuntza eta berrikuntza beharra dakarrela. Horri erantzutea izango da Ikasgu Nagusiaren betebeharrerako bat.

Ildo horretatik, Ikasgu Nagusiaren lehen ekimena *Hezkuntza Zentroetako Zuzendaritza Masterra* prestatzea izan da. Mondragon Unibertsitatearen lankidetzarekin abian jarri den master horretan ikastoletako zuzendaritzetan ari diren 13 lagun hasi dira.

Bestalde, euskal irakaskuntzaren aldeko beste ekimen bat Euskal Herrian Euskarazek abian jarritako *Eskolak euskaldundu behar du!* kanpaina da. EHEk DBHko euskararen egoerari buruzko ikerketa bat egin du, eta Euskal Herriko ikasleen erdia eskolatik erdaldun ateratzen dela ondorioztatu du.

Egoera horri buelta emateko xedez antolatu du kanpaina. Batetik, hainbat mahai inguru antolatu ditu. Eta bestetik, belaunaldi berri guztiak euskaldundu diko dituen eskolaren aldeko atxikimendua biltzeko manifestua egin du.

Umeei ez diegu esan behar dena erraz uler daite-keela. Ulertzeko, ikasteko etengabeko lana egin behar da, eta lan hori atsegina bihurtuko da soil-soilik lehen ulergaitz eta gorrotagarri zena maitagarri eta ulerkor egiten den heinean.

Lolo Rico



Irakaskuntza publikoko behin-behinekotasuna salatu dute sindikatuek

Urtarrilaren 19an irakaskuntza publikoko 100 langile inguru bildu ziren Eusko Jaurlaritzaren Lakuako egoitzaren aurrean irakaskuntza publikoko behin-behinekotasuna salatzeko. CCOO, EILAS, ELA, LAB eta UGT sindikatuak ez daude ados Hezkuntza Sailak uztailerako deitu asmo duen Lan Eskaintza Publikoarekin.

Presio eta mobilizazioen ondorioz, zenbait gauza lortu dituzte. Adibidez, Hezkuntza Sailak otsailaren 13rako Akordio Arazoaren zirraborra aurkezteko konpromisoa hartu du.

Osterantzean, beste hainbat puntu oraindik zehazteko eta adosteko daude. Urtarrilaren 24ean bildu ziren Hezkuntza Saila eta irakaskuntza publiko ez unibertsitarioaren Alorreko Mahaia. Bileraren ostean sindikatuak ez ziren

batere gustura gelditu enpleguaren sorkuntzari, egonkortasunari, lanorduen murrizketari eta erretiro aurreratuari buruz Hezkuntza Sailak emandako erantzunekin. Euren ustetan Kudeaketa Integrala baino ez du aurkeztu, eta horrek arazoak konpontzeko ordez epeak luzatzen ditu irakasleen beharrei irtenbiderik eman gabe.

Egonkortasun ezaren arazoa ez duela konponduko diote, egiten den 1.325 lanposturen eskaintza eskasa baita. Irakaskuntza publikoko enplegu errearen %30 lan kontratu iraunkorra ez duten irakasleek betetzen dutela aditzera eman dute, eta hori onartezina dela.

Irakaskuntza publikoan dagoen behin-behinekotasun egoera gainditzeko, Hezkuntza Sailak sindikatuekin hainbat neurri adostu beharra ezinbestekotzat jotzen dute langileek. Horrela, zenbait proposamen egin dituzte. Bata lanaldiaren murrizketa; 55 urte baino gehiago dituzten irakasleen landaldia murriztea proposatzen dute. Bigarrena irakasle egonkorren kopurua areagotzeko neurriak hartzea da. Hirugarrenak jubilazioei egiten die erreferentzia; irakasleak 65 urte bete baino lehenago jubilatzeko pizgarriak eskaintzea iradokitzen dute. Eta azkenik, ikastetxeetako premia berriak betetzeko sortu diren figurak sendotzea.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak 2002. urterako aurrekontuak onartu ditu. Guztira 61.003.032 euro inguru (10.150 milioi pezeta eta 406 milioi libera) izanen dira, iaz baino %11,7 gehiago.

Besteak beste, aurrekontuetan bi titulazio berri irekitzea aurreikusten da. Horrekin batera, ikasle kopuruaren murrizketa ere aipatzen da, Bartzilergoan ere gero eta ikasle gutxiago baitago.

Bestalde, unibertsitateko sail eta departamentu bakoitzaren lanaren arabera diru sailak onartu dituzte, eta horretarako neurri sistema bat egokitu eta onartu dute.

Bien bitartean, Euskal Herri osorako unibertsitatearen aldeko ekimenek aurrera darraite. Bai Euskal Unibertsitateari egiturak lege izateko asmoa duen proposamena aurkeztu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrean urtarrilaren 15ean. Herri ekimeneko lau ordezkari izan ziren bertan: Arantza Urkaregi, Iñigo Santxo, Andres Martinez eta Ibai Redondo. Euskal Herri osorako unibertsitatea sortzea dute helburu herri ekimeneko kideek. Asmo horrekin, beste hainbat erakundetan ere aurkeztu dute ekimen legegilea. Orain, Eusko Legebiltzarreko Mahaia 30 eguneko epean testua tramitera onartu beharko du. Eta ondoren, herri ekimeneko kideek 30.000 sinadura bildu beharko dituzte. Bidenabar, EAEko Hezkuntza Saila bere Unibertsitate Legea egiten hasi da. Gogoeta, diagnosis eta inguruko eredu azterketarekin ekin dio. Horren ondotik etorriko dira kontsultak, eta azkenik lege proiektua. Ekainerako lege proposamena egina eduki nahi du.

Euskal Giroitze Barnetegiak

Euskaraz bizitzeko





Euskal Giroitze Barnetegien izateko arrazoia

Euskararen erabilerak kezka ugari sortzen ditu irakasle eta gurasoen artean. D ereduko matrikulazioak urtetik urtera igotzen doaz. Giro erdaldunetan ere euskaraz ikasten duten ikasleak gero eta gehiago dira.

Hatik, sarritan euskara eskolako eremuan gelditzen da, ez da hortik kanpora ateratzen. Etxean, kalean, lagunartean eta abar erdara nagusitzen da. Ikasleek euskara eskolarekin erlazionatzen dute, eta gainontzeko giroetan euskaraz ez du lekurik. Zinea euskaraz? Euskarazko komikiak? Etxeko solasaldiak euskaraz? Auzoko dendetan euskaraz? Kiroldegian euskaraz? Bizi diren ingurunean hori posible denik ere ez zaie bururatzen.

Euskal Giroitze Barnetegietan bost egun pasa ondoren, ordea, iritzi hori aldatu egiten zaie. Eskolatik kanpora ere euskaraz bizi daitekeela konturatzen dira. Hori kontatu digute, bederen, Euskal Giroitze Barnetegietako ardura-dunek, irakasleek eta ikasleek.



Iñaki ITURAIN

Euskal Giroitze Barnetegien koordinatzailea

1985-86 ikasturtean ireki zuen Hezkuntza Sailak lehen Euskal Giroitze Barnetegia Euban. Euskal Autonomia Erkidegoko ikasle askok eskolan euskaraz egin arren handik kanpo giro euskalduna ezagutzeko eta bizitzeko aukerarik ez zutela ikusirik ireki zuen. Geroztik beste zenbait ere irekiz joan dira, eta gaur egun bost dira martxan daudenak: Alkiza, Plentzia, Espejo, Segura eta Elgoibarkoa.

Barnetegi horien helburu nagusia etxeko eta kaleko erdal giroan bizi diren haurrei euskal giro aberatsa ezagutzeko eta, are

gehiago, bertan euskaraz bizitzeko aukera eskaintzea da. Lortu nahi dena zera da: euskaraz lehen pausoak ematen ari diren ikasleei, hizketan askatu ezin hori gaindiaztea, euskaraz komunikatzeko gai direla konturaz beren buruekiko segurtasuna eta konfiantza sortzea eta hitz etorria indartzea. Iñaki Iturain Euskal Giroitze Barnetegien koordinatzaileak dioen bezala, *“euskararen aldeko joera erne dakien nahi dugu, hizkuntzarekiko maitasuna sentitzea, hori baita hizkuntzaren erabilera bultzatzeko modurik eraginkorrena”*.

Irakasleak ere ikastera doaz

Ez dira ikasleak bakarrik barnetegien jomuga; irakasleak ere ikastera joaten dira. Izan ere, irakasleei hizkuntzaren alorrean laguntza eta aholkua ematea da barnetegien beste eginkizun bat. Eskolatik barnetegira taldearekin joaten den irakasleak, bertako ekintzetan parte-hartze aktiboa



G



duen neurrian, egiten diren jolasak eta baliabideak ezagutzeko modua izaten du. Horrela, interesatzen zaizkionak edo bere eskolarako baldintzetan aplikatzeko modukoak direnak eskuratzeko aukera du. *“Ikusi eta ikastitakoa eskolara eramateko aukera dute”* dio Iturainek. Xede horrekin hainbat argitalpen eta material osatu dira barnetegietan.

Barnetegi bakoitzaren eskaintza

Esan bezala, gaur egun bost barnetegi dira Euskal Giroitze Barnetegien eskaintza osatzen dutenak. Alkiza eta Plentziara B ereduko ikasleak joaten dira; lehenengora Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailakoak, eta bigarrenera Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak eta DBHko 1. eta 2. mailakoak. D ereduko ikasleentzat beste bi barnetegi daude, Segurakoa eta Elgoibarkoa. Segurara Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5. mailakoak joaten dira, eta Elgoibarrera Lehen Hezkuntzako 6. mailakoak eta DBHko 1. eta 2. mailakoak. Azkenik, Espejora maila horietako guztiak joaten dira, baina A ereduan ikasten dutenak. Guztieta bost eguneko egonaldiak egiten dira.

1985-86 ikasturtetik orain arte

39.196 ikasle joan dira Euskal Giroitze Barnetegietara. Aurten 260 ikastetxek hartuko dute parte; 68 Gipuzkoakoak, 149 Bizkaikoak eta 43 Arabakoak. Ereduka sailkatuz gero, D eredukoak 123 ikastetxe dira, B eredukoak 101 eta A eredukoak 36. Eta sareei dagokionez, bi heren herri ikastetxeak dira eta heren bat pribatuak.

Orain arteko aurrerapenak

Barnetegiak emaitza onak eman dituzte Iturainek dioenez: *“Arazo handienetako bat zera zen: ikasleek irakasle eta begiraleen kontrolpean zeuden bitartean beraien artean euskaraz egin zezaten lortzen zela, baina begiraleen eta irakasleen begiradapetik kanpora, ordea, gaztelania erabiltzen zutela. Urte hauetako lanaren eta hausnarketa luzeen ondotik, pertsonaia eta joko jakin batzuk erabili dira barnetegietan. Motibazio handikoak suertatu dira eta aipatu dugun ohitura hori aldatzea lortu da”.*

Aukeraketa irizpideak

Edozein ikastetxek egin dezake Euskal Giroitze Barnetegietako egonaldietan parte hartzeko eskaera, baldin eta baldintza eta irizpide batzuk betetzen badira. Besteak beste, zuzendariak eskabide

orria bidaltzen duenean ziurtatu egin behar du eskolako irakasle euskaldun batek ikastaldearekin batera barnetegira joateko asmo sendoa duela eta hango ezaugarri nagusien jakinaren gainean dagoela.

Hezkuntza Sailak urtero Aste Santu inguruan egiten du deialdia, eta ikasturte amaierarako erabakiaren berri ematen die eskolei.

Eskaera egiten duten zentroen artean aukeraketa egiterakoan honako irizpideak hartzen dira kontuan: aukeran dauden txandak, lurralde bakoitzeko ikastetxe kopurua, jasotako eskabideen kopurua, ikastetxea Hizkuntz Normalkuntzako Proiektuan sartuta egotea, aurreko urteetan eskabidea egin eta aukeratua ez izana, haur kopurua, taldea lehendik barnetegian egon gabea izatea eta gizarte egoera ahuleko eskualdekoa izatea. A ereduko ikasleen kasuan, lehentasuna izaten dute goiko mailetakoek.

Euskal Giroitze Egonaldien maleta

Ikastetxe asko gelditzen dira barnetegietara joan ezinik toki faltagatik eta horientzat Euskal Giroitze Egonaldien deialdia dago. Horrela, Euskal Herriko beste gainontzeko aterpetxetara joateko laguntza jasotzen dute. *“Norberak bere kabuz aterpetxe horietara joateko aukera badu, baina han begiralerik ez du aurkituko. Horregatik, gure urteetako esperientziaz baliatuz, horiei laguntzeko “EGE maleta” izendatu dugun materiala prestatzen ari gara, norberak egonaldia antolatzeko lagungarri izan dadin”* azaldu digu Iturainek.

Maleta irizpide lingustikoei lotutako edukiekin betetzen ari dira, eta ereduen eta mailen arabera desberdinak izango dira. Berritze-guneetan banatuko dituzte, eta ikastetxeek han izango dituzte eskuragai.



Jaione ANSOLA
Segurako barnetegiko begiralea

GATA

Euskal Giroitze Barnetegiak

Euskaraz bizitzeko

G

Segurako barnetegia

Segurako barnetegira Dereduko 3., 4. eta 5. mailako ikasleak joaten dira. 15-35 haur bitartean biltzen dira eta bost eguneko egonaldia egiten dute.

Ikasturte honetan barnetegian dauden begiraleak Jaione Ansola, Agustin Mujika, Txema Mujika, Josetxo Ugalde, Maitte Olabe eta Amaia Telleria dira. Ongi asko dakite zein den beraien egitekoa: haurrak euskaraz bizi daitezkeela ohartzea.

Xede horren harira antolatzen dira barnetegiko jarduerak guztiak, eta Segurako kasuan, *Txaparro* maskota da ekintza guztiak lotzen dituen eta euskaraz egin dezaten bermatzen saiatzen dena. Bide bat baino gehiago erabiltzen ditu horretarako. Jaione Ansolak dioskunaren arabera, bata hona etorri aurretik bidaltzen zaien eskutitza da. *“Txaparro gutun bat bidaltzen die hemengo helburua euskaraz egitea dela esanez, hemen zer egingo den kontatuz eta zer ez den egingo adieraziz. Etorri eta lehenengo egunean berriz ere euskararen gaiak hitz egiten diegu. Txaparro izeneko aldizkari bana ematen zaie, eta euskara nola landuko dugun eta zer hartuko dugun kontuan esplikatzen zaie”*. Aldizkari horretan egunerokoa, barnetegiari buruzko informazioa, denbora-pasak, margotze-koak, abestiak eta euskararen balorazioa daude. Egunerokoa egun bakoitzean zer egin duten idazten dute, beraien iritzia emanez eta nola pasa duten idatziz. Euskararen balorazioari dagokion atalean, bakoitzak bere burua ebaluatzen du. Horrela, *dena euskaraz*


egin badute, puntu gorria jartzen diote beren buruari; *erdia baino gehiago euskaraz egin badute, puntu horia; eta erdia euskaraz egin gero, puntu berdea*. Bestalde, astean zehar egiten diren ekintza guztiak ostiral arratsaldean egiten duten bola txapelketarekin lotura dute. *“Egiten dituzten ekintza guztietan kanikak banatzen zaizkie, beti ere euskararen erabileraren arabera, delarik kopurua. Gero, ostiralean, bola txapelketa egiten dugu. Kanika kopuruaren arabera, zenbat birla bota behar dituzten eta bola zenbat aldiz*

jaurti dezaketen esaten zaie. Eta azkenean diploma antzeko bat ematen zaie beraien argazkiarekin”. Bola txapelketa ostiral arratsaldean denez, ordura arte mantentzen dute energia, eta noski, euskaraz mintzatzeko helburua.

Orain arte aipatutako bitartekoez gain, *Txaparro saioa* izeneko asanblada ere erabiltzen dute. Goizero haurrek begiraleekin bezperan nola afaldu duten, gaua nola pasa duten, zer ordutan lokartu diren eta antzeko gauzak komentatzen dituzte, eta baita euskara zenbat erabili duten, nola eta abar.



Jolastera datoz eta jolasen bidez egiten dugu dena. Jolasen bidez euskara erabiltaraztea da gakoa. Jolasek funtzionatzen dute, haurrak asko inplikatzeko dira, eta beraz, hizkuntza lantzeko erabilgarriak dira. Ondorioz, horretaz baliatzen gara



Programazioa

Barnetegiko arduradunek esan digutenaren arabera, bost egunetako programazioa eratuta daukate. Hala ere, adinaren eta taldearen arabera hainbat ekintza aldatu egiten dituzte.

Hasteko, lehenengo eguneko arratsaldean Segura herria ezagutzera irten dira. Haurrak lasaitzeko balio izateaz gain, begiraleentzat ere aproposa da haurrek nola hitz egiten duten behatzeko. Horrez gain, beste irteera pare bat egin ohi dituzte hurrengo egunetan. Bata Zerainera izaten da. Oinez joan ohi dira hara eta herriko museo etnografikoa eta diaporama ikusten dituzte. *“Hango arduraduna euskalduna da eta beste erregistro bat ezagutzeko aukera izaten dute haurrek”* dio Txema Mujikak. Beste irteera Goimen elkartearen barruan sartuta dauden ekintzaren bat ikustera joatea izaten da: Urretxuko Aikur baserrira erleen mundua ezagutzera, Gabiriko Baztarrika baserrira gazta egitera, Aginako Martin Muino baserrira lore lehorrekin lan egitera...

Bestalde, antolatuta dauzkaten tai-

lerretatik bi egiten dituzte astean zehar: ordenagailuekin, dantzak, irratsaioak, telebista saioak...

Eta noski, hizkuntza lantzeko jolasak ere ez dira falta. *“Sinonimoak lantzeko Zirkoaren jolasa daukagu, kultura orokorra lantzeko Indian taula, esamoldeak lantzeko Karlota robota, Txunpa txun galdera motzen jolasa...”* azaltzen digu Agustin Mujikak. *“Jolas ezagunak dira, baina guk euskara lantzeko moldatu eta prestatu ditugu. Zeren, ondo pasatzeko eta ikasleak motibatuzeko balio izateaz gain, hizkuntza lantzeko egokiak izatea baitaizen gakoa. Horregatik, joko guztiak hizkuntz edukia txertaturik dute”.*

Jolasen balioaz ederki jabetuta daude begiraleok. *“Haurrek ikastetxean egiten ez dituzten gauzak egiten saiatzen gara”* dio Josexo Ugaldek. *“Jolastera datoz eta jolasen bidez egiten dugu dena. Jolasen bidez euskara erabiltaraztea da gakoa. Jolasek funtzionatzen dute, haurrak asko inplikatzeko dira, eta beraz, hizkuntza lantzeko erabilgarriak dira. Ondorioz, horretaz baliatzen gara”.*

Norabide bakarra euskara da

Barnetegiko ekintza eta jarduera guztiak euskararen erabilera bultzatzera bideratuta daude, hori baita barnetegiaren izateko funtsa.

Gakoa zera da: bost egunetan lortzen ote den erdal giroko haurrak euskaraz mintzatzea. Begiraleek baietz diote, beti ere emaitzak taldearen arabera neurtu behar direlarik. *“Lehenengo egunean asko kostatzen zaie euskaraz mintzatzea, normalean gelan soilik egin ohi dutelako”* azaltzen digu Ansolak. *“Guraso gehienek ez dakite euskaraz hitz egiten, eta gelatik kanpo ia inork ez du egiten. Herri batzuetan kallean gehiago entzuten dute, baina beste batzuetan ez. Horregatik, euskaraz jolastea, bazkaltzea, dutxatzea, afaltzea, lo egitea, esnatzea eta abar posible dela konturatzea nahi izaten dugu. Helburua euskaraz bizi daitekeela ohartzea da”.*

Era berean, giza mailako hainbat helburu lortzeko bultzada eraginkorrrak emateko aproposak dira barnetegiak: elkarbizitza, norberaren nortasu-

G

G A I A

Euskal Giroitze Barnetegiak

Euskaraz bizitzeko

na eta autonomia, hezkidetzaz, integrazioa, naturarekiko harremana eta abar.

Normalean hirugarren egunerako euskaraz egin dezaten lortzen dutela diote begiraleek. Dena dela, jakin badakite barnetegia txoko bat baino ez dela, eta ezin dela miraririk egin.

Kontuan hartu behar da haur guztien euskara maila ez dela berdina, eta beraz, beti ez direla nahi diren helburuak lortzen. Ugaldek dioenez, *“taldeak gehiago ezin duela ikusten bada, soka pixka bat lasaitu egiten da eta helburua ere apaldu. Haurrak ezin dira ito, ezin da posible dena baino gehiago egin, eta azken finean, xedea euskararekiko maitasuna sentituz ondo pasatzea da”*.

Begiraleen eta irakasleen erantzukizuna

Barnetegiko begiraleak zortzi orduz egoten dira hurrekin: goizeko 9:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 18:30era. Gainontzeko orduetan irakasleekin egoten dira.

Azken horien kasuan, haurrak begiraleekin dauden bitartean irakasleak bertan egotea komenigarria eta garrantzitsua izaten dela azpimarratzen dute begiraleek. *“Gure lanerako berdin zaigu aurrean egon edo ez, baina haurrentzat oso garrantzitsua da irakasleak hor egotea. Bestela, irakasleak non dauden galdezka hasten dira, eta hori ez da ona. Azken finean, irakasleak dira ikasleen erreferentzia. Gu beraien*

lagunak gara, beraiekin ondo pasatzeko gaude, baina irakaslea da aurretik beraiekin egon dena eta ondoren ere egongo dena”.

Irakaslearen presentzia horrekin eta inplikazioarekin loturik dago aurretik eta ondoren egiten den lana ere. Barnetegiko arduradunek irailan bilera bat egiten dute irakasle guztiarekin. Bertan, barnetegira joan aurretik zer egin dezaketen esaten diete, zenbait ideia ematen dizkiete: Segura herria kokatu, historia pixka bat bilatu liburuetan edo Interneten, eta motibatu. Guztiak ere ideiak eta iradokizunak dira, ez dituzte ezertara behartzen. Baina barnetegira joaten direnean, aurretik zerbaitekin landu duten edo ez ongi antzematen dela diote arduradunek.

Euskaraz jolastea, bazkaltzea, dutxatzea, afaltzea, lo egitea, esnatzea eta abar posible dela konturatzeko nahi izaten dugu guk. Helburua euskaraz bizi daitekeela chartzea da



Iritziak

Muskizko ikastolako ikasleak iaz izan ziren Segurako barnetegian. Ikasleak zein irakasleak oso gustura egon ziren, eta hori islatzen da beren iritzietan. Barnetegira joan aurretik gaia landu zuten, eta baita ondoren ere. Horren lekuko da Segurako esperientziaren inguruan osatu duten web orria, eta beste hainbat kontu eta informazioaren artean aurkitu ditugu ondorengo iritziak.

Siracusa BAÑULS

Muskizko ikastolako irakaslea

Ikasturtez ikasturte eskolaz kanpoko giroan euskara hutsean elkarrekin bizitzeko aukera eskaini nahi diegu gure ikasleei. Euskararenganako motibazioan eraginez, euskararen aldeko jarreraren garapena bultzatuko duen giro euskaldunean murgildu nahi ditugu.

Hori dela eta, marko ezin aproposagoa topatu genuen iaz Segurako Euskal Girotze Barnetegian.

Erabat euskalduna den ingurune hartan, etxeko zein kanpokoekiko edozein harremanetarako euskara besterik ez genuen behar izan egonaldi osoan zehar.

Gure ikasleek, erdal ingurukoak izanda, aukera paregabea izan zuten euskaraz bizi diren herriak badirela ohartzeko.

Hizkuntz gaitasuna landu eta erabilera suspertzeko jokoetan oinarritutako metodologiak erraz erakarri eta inplikatu zituen gure neska-mutilak barnetegian antolatutako jardueretan.

Joko eta jolas zirriragarri eta dibertigarriak, kantak, dantzak... motibazio handiko ekintzak izan ziren guztiak.

Giro atsegin, lasai eta ludikoan murgilduta, gustura eta ezin pozago ibili ziren haurrak. Une eta egoera guztietan euskaraz.

Ekimen garrantzitsuak eta arras baliagarriak izan ziren egin genituen irteera eta bisitaldiak: ingurune berriak ezagutu genituen, barnetegitik kanpoko jendearekin euskaraz ari-

tzeko egoerak bizi izan genituen eta zenbait gaien inguruko informazio ugari eta interesgarria jaso genuen.

Egonaldi bikaina bizi izan genuen Seguran, alor eta maila guztietan aberasgarria.

Oroitzapen atseginak dira orain gurekin.

Euskaraz jarduteko eta hobeto egiten saiatzeko konpromisoa ere bada gure artean.

Ikasleen motibazioa aprobetxatuz, egonaldia gaitzat hartuta aritu gara lanean ikasgelara itzultitakoan.

Seguran izandako egonaldiaren berri eman nahi izan dugu gure web orrian: herriaren inguruko informazioa, barnetegiko deskribapena, bertan burututako zenbait jardueren azalpena, Urretxun erleei buruz ikasitako hainbat datu, aste hartan izandako bizipenen inguruko iritziak eta abar.





Garazi

Segurako barnetegia oso handia eta polita da. Logelak bi pertsonentzat dira, ondo daude baina alde batean zirikito bat zegoen eta beste aldean bi kuxkuxero zeuden, Beñat eta Joseba Fournier izenekoak. Joku gelan ondo ibili ginen futbollean, petankan, ping -ponean... Frontoia handi xamarra zen. Gehien gustatu zaizkidan ekintzak diskoteka eta Karlota robota jolasa izan ziren. Herria ikustera joan ginen eta zoragarria da Segura. Ordiziako azokara ere joan ginen eta erosi genuena sukaldariak afaltzeko presatu ziguten. Erleteri batera ere joan ginen eta gauza izugarriak ikusi genituen; ezitia eman zigun Josunek (erlezainak) eta argizarizko kandela bat egin genuen. Bigarren egunean Zerainera joan ginen bertoko museora, polita zen, aintzinako tresnak zeuden. Museoa ikusi eta gero parkean jolasten ibili eta barnetegira! Altxorraren bila jolasean 25 puntuko kanika bat irabazi genuen eta Txaparoren kamiseta bana eman ziguten. Ostiralean abesti berriak ikasi genituen, dantza batzuk baita ere. Txunpa -pum jolasean primeran ibili ginen! Ostiralean bola txapelketan ikaragarri ondo pasatu genuen eta errekorra lortu genuen! Hango monitoreak zoragarriak ziren: Txema eta Karmele. Segurara itzultzea gustatuko litzaidake!

Iritzia orokorrean: ikaragarri ondo pasatu genuen!



Beñat

Barnetegiko jokoak nahiko politak ziren, baita oso dibertigarriak ere. Hango oheetan ezin nuen lorik egin Joseba Ortizengaitik..... Zirrikitoak zeuden hango logeletan. Han, base-rian, nire urtebetetzeko merendola egin genuen.

Irteerak nahiko nekagarriak ziren. Urretxuko erletegiko neskak Josune zuen izena eta erleen inguruko gauza asko azaldu zizkigun. Barnetegiko janaria oso ona zegoen eta horko sukaldariak oso majuak ziren. Egunerok jar-tzen zizkiguten enigmak oso dibertigarriak ziren eta diskoteka, ez dizut kontatzen! Gauza bat nahiko ondo zegoen: frontoi ondoko jokogela. Han erraketak, pilotak eta beste gauza asko zegoen. Barnetegiko irakasleak oso majuak ziren eta beraien izenak Karmele eta Txema dira. Egun bakoi-tzean jantokian arduradun batzuk zeuden. Egin genuen altxorraren jolasa oso dibertigarria zen eta altxorra aurkituz gero 25eko kanika eta Txaparoren kamiseta bana irabazi genuen. Karlota eta Karlitos jokoak oso politak ziren. Eta Txemak abesti polit batzuk erakutsi zizkigun. Nik Segurara berriro joan nahi nuke!



Pablo

Diskoteka asko gustatu zait. Monitoreak oso majuak dira. Karlota errobotarekin ikaragarri ondo pasatu genuen. Eguerdian batean Agustin gu agurtzera etorri zen bazkal orduan.

Erletegian egon ginen eta kandela egin genuen. Zerainera joan ginen eta hango museoan izan ginen. Ordiziako azokara ere joan ginen, han erosketak egin genituen.

Azken egunean boloetan jolastu genuen. Jolas gelan egunerok ondo pasatzen genuen. Altxorraren jolasan kamiseta bana irabazi genuen.

Egunerok goizez euskararen balorazioa egiten genuen: beti eskaraz egiten genuen! Seguran ikaragarri ondo pasatu genuen. Segurara berriro joan nahi dugu!

Ikasle gehiagoren iritzia eta Segurako barnetegiko esperientziari buruzko informazio gehiago <http://www.muskizkoikastola.com/ikasleentxokoa/websegura/index.htm> helbidean duzue.

G A I A
Euskal Girotze Barnetegiak
Euskaraz bizitzeko



hezkuntzako gizarte eragilean bilgunea



Euskal Herrirako hezkuntzak zer kalitate baldintza behar dituen definitzeko eskubidea daukagu herri edo nazio moduan, eta hori hausnartzen eta gizarteratzen hasi gara jardunaldiarekin

hezkuntzako gizarte eragileen bilgunea

E

Gure asmoa ez da inondik ere LOGSE defendatzea, baizik eta gure herrirako hezkuntza sistema propioa eratzea bere lege propioekin. Horregatik, jardunaldia ez da ez dakit zer kalitate legeren aurka egin, baizik eta gure hezkuntzaren kalitatearen alde

Hezkuntzako Gizarte Eragileen BILGUNEAK antolatutako *Bigarren Hezkuntza: gabeziak eta erronkak*. Kalitatearen Legea gaiaren inguruko jardunaldia ospatu berri da. Hezkuntza komunitateko 100 partaide inguru bildu dira hainbat adituren iritzia entzutera. Hurrengo urratsa gaiaren inguruko hausnarketa eta eztabaida ikastetxetara zabaltea izango da.

Prozesu hori, ezbairik gabe, PPK atera nahi duen Kalitatearen Legearekin loturik doa. LOGSE Legea indargabetuko duen lege berria laster izango da indarrean. Oraindik inork ez daki zehazki nolakoa izango den eta zer aldaketa ekarriko dituen, baina susmoak badaude. Legea ezarri aurretik gizartea sentzibilizatu nahi du BILGUNEAK. Talde eragileko kide diren Marije Fullaondorekin, Edu Zabalararekin eta Garbiñe Arriabalagarekin aritu gara BILGUNEAREN asmoen eta Kalitatearen Legeaz.

Hezkuntzako Gizarte Eragileen BILGUNEAK *Bigarren Hezkuntza: gabeziak eta erronkak*. Kalitatearen Legea gaiaren inguruko jardunaldia burutu berri du. Zer-nolako jardunaldia izan da?

Edu Zabala.-Jardunaldia gure hezkuntza sistemak zein gabezia dituen ikusteko pauso edo lehen saiakera izan da. Orain daukagun hezkuntza sistemak eta LOGSEK gabeziak dituzte eta horiek detektatu ondoren, zer proposamen eta aurrerapauso eman daitezkeen ikusi nahi izan dugu jardunaldian, betiere hezkuntza sistema propioaren bidean.

Marije Fullaondo.-Bi mailatan egin nahi den gizarteratze prozesu bat da. Lehendabiziko urratsa hausnarketa izan da. BILGUNEAK hortik ondorio batzuk aterako ditu eta horiek ikastetxetara itzuliko dira. Han aztertu eta eztabaidatu ondoren, ekarpenak jaso egingo dira.

Zer-nolako izaera eman nahi diozue BILGUNEARI?

Zabala.-Erakundearen ikurrak edo logotipoak erakusten duen moduan, kolore anitzeko kuboak dira, eta kubo bat sartzen ikusten da. Horrek adierazi nahi duena da ez garela plataforma itxia, baizik eta irekita gaudela, eta gai-





ren arabera nahi duena sar daitekeela parte hartzera. Erakunde finko gisa Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea, LAB, EILAS eta ELA sindikatuak, Ikastolen Elkartea, Ikasle Abertzaleak, Sarean eta Sortzen-Ikasbatuaz gaude, baina beste zenbait erakunde ere bildu izan zaizkigu. Adibidez, Lanbide Heziketan zerbait egin daitekeenean, Hetele, Ikaslan eta beste erakundeekin harremanetan jarri izan gara. Tokian tokiko eta garaian garaiko egoerara irekita gaude, betiere hezkuntza sistema propioaren baitan.

BILGUNEAren jardunaldiak eta PPK kaleratzeko asmoa duen Kalitatearen Legeak zer erlazio dute?

Fullaondo.- Garbi dago Kalitatearen Legea hor dagoela eta horregatik hasi garela mugitzen. Beti, zoritxarrez, arazoen aurrean bildu eta mugitzen gara. Beraz, beharbada horrek bultzatu du gure arteko hurbilketa, baina hori ez balego ere egin beharko genukeen gauza da.

Izan ere, Euskal Herrirako hezkuntzak zer kalitate baldintza behar dituen definitzeko eskubidea daukagu herri edo nazio moduan, eta hori da egin nahi duguna, hori izan da jardunaldiaren helburua. Hezkuntza sistema propioaren bidean Euskal Herri osorako baliagarria den hezkuntzaren kalitateaz aritu gara. Ez dugu EA Era, Nafarroara edo Espainiako testuingurura bideratu. Momentuz Kalitatearen Legea Espainiako lurralde eremu ofizialean ezarriko da, baina BILGUNEaren asmoa

ez da horretara mugatzen.


Hiru administrazioetako adituek eta hezkuntzaren egoeraren berri eman duten adituek hartu dute parte jardunaldian. Xedea Euskal Herri osorako hezkuntza sistema propioaren defentsa da. Beraz, Euskal Herri osorako hezkuntzak zein kalitate baldintza bete behar dituen azaltzea edo jasotzea izango litzateke gure helburua.

Garbiñe Arrizabalaga.- Kalitatearen Legea LOGSE ondo ez dagoelako ezarri nahi dute, ez duelako ondo funtzionatzen. Guk aztertu nahi duguna da zergatik dagoen gaizki, zergatik ez duen ondo funtzionatzen eta zer arazo duen PPren Gobernuak LOGSE kentzeko. Beraz, bai, gure jardunaldiak badu lotura lege berriarekin. Legea atera aurretik jendea sentsibilizatu eta prest egotea nahi dugu. Posible den neurrian, ikastetxeetara eraman nahi dugu eztabaida. Hori da politikariek egiten ez dutena eta guk egin nahi duguna.

Zeresperoduzue ikastetxeetatik, irakasleengandik, ikasleengandik eta gurasoengandik?

Zabala.- BILGUNEAn eta hortik kanpo gauden eragileen indar eta konpromisoak eragina izango du emaitza hobek eta okerragoak lortzeko garaian. Erdi lozorroan dagoen sistema pixka bat esnatzea da kontua; guraso, irakasle eta ikasleek ere konpromisoa hartzea nahi dugu gai horren inguruko eztabaidetan eta proposamenak egiterakoan. Ez du denak ohiko goiko estamentuetan gelditu behar. Dinamizazio horrek gizarteratze lan bat eskatzen du eta hori berez da aberasgarria. Hortik aterako diren ondorioak edo emaitzak gero baloratuko ditugu, ikusiko dugu zer dakarren.

Orain dela 10 urte ezarri zen LOGSE Lehen Hezkuntzan eta duela bizpahiru urte bukatu zen bere ezarpen osoa. Ez al da azkarregi ondorioak ateratzeko eta legea indargabetzeko?



Hezkuntza sistema propioaren bidean ere beste atzerapauso bat da Kalitatearen Legea, ez baitu ahalbidetuko euskal curriculuma

Zeresan handia du gizartea nola mobilizatzen den eta erantzukizunak nori eskatzen dizkion. Mobilizaziorik gabe badakigu ziur legea ezarri egingo dela, eta kito. Gizarteari bere iritzia emateko bideak ireki behar zaizkio

Fullaondo.-Hala da, ez da benetako hausnarketa sendo bat egiteko adina denbora pasa. Porrot egin duela dirudi, baina zergatik? Hori inork ez du galde-tu. "Ez du balio eta goazen beste lege bat egitera" da PPren ideia.

Legeak gauza asko zituen hobetze-ko, baina gauza onak ere bazituen; aurrerapauso handiak zituen irakas-kuntzaren edo pedagogiaren ikuspegi-tik, behintzat. Baina, legea abian jar da-din eta bete dadin baliabideak jarri behar dira, edo ahalmenak eman behar zaizkie ikastetxeei eta irakasleei. Eta hori bai zalantzan jartzen dugula, hots, ikastetxeetan formaziorik eman ote den legeak zioena aurrera eraman ahal izateko.

Bi legeren artean gaude: LOGSE eta Kalitatearen Legea. BILGUNEAK Kalitate Legearen aurkako jarrera duela dirudi. Horrek zer esan nahi du, LOGSE defendatzen duela?

Fullaondo.- Ez. Interpretazio hori egiteko arriskua egon liteke, eta gure asmoa ez da inondik ere LOGSE defendatzea. Gure helburua ez da LOGSE hobetzea edo ez hobetzea, baizik eta gure herrirako hezkuntza sistema propioa eratzea bere lege propioekin. Horregatik, jardunaldian ez da ez dakit zer kalitate legeren aurka egin, baizik eta gure

hezkuntzaren kalitatearen alde. Hori da finkatu nahi duguna jardunaldiare-kin, eta ezeren kontra egin gabe.

Zabala.- Badirudi Kalitate Legea- ren aurka jartzean LOGSEren alde jar- tzen garela, eta hori ez da hala. Identifi- kazio hori puskatu egin nahi dugu. Gu- re ahalmen, indar edo gabeziekin mo- du batean edo bestean urratsak eman nahi ditugu gure hezkuntza eredu pro- pioa definitzeko. Hau da, gabeziak de- tektatu ondoren, zer urrats eman behar ditugun horiek gainditzeko, kalitate hit- za edo beste bat erabil daitekeelarik hori definitzeko.

Kalitatea gora eta kalitatea behe- ra ari gara, baina denok gauza bera ulertzen al dugu kontzeptu horrekin?

Fullaondo.- Egia da kontzeptua be- ra ondo definitu gabe dagoela oraindik. Lehenengo kalitate hitza definitu be- harko genuke. Izan ere, lege berriari Kalitatearen Legea deitzen diote, baina oraindik ez dakigu kalitate hitzak zer esan nahi duen.

Arrizabalaga.- Beraiek LOGSEren aurkako kontzeptu gisa hartu dute: "LOGSE ez da kalitatea eta guk jarriko dugu kalitatea" diote.

Zabala.- Lanbide Heziketan eta ikastetxeetan kalitatea beste modu ba- tera ulertzen da: ISO, EFQM, merchan-





dising, barne ebaluazioa, emaitzak, lehia, konpetitibitatea... Beraiek, ordea, ez diote horri egiten erreferentzia. Zeri? Ez dakigu. Garbi dago gure jardunaldian ez dugula beraien kalitate horretaz mintzo nahi izan.

Noizko ezarri nahi du legea PPK?

Zabala.- Segur aski Aste Santuaren aurretik aterako da, baina ez dakigu ziur. Dena susmoak eta zurrumurrak dira. Badirudi LOUrekin gertatu den iskanbila oraindik baretu gabe dagoela-eta, atzeratu egin nahi dutela pixka bat, gizartea berriro ere beraien aurka altxa ez dadin. Horregatik, orain Lanbide Heziketako Legearen aurreproiektua aurkeztu dute, eta badirudi hori ez dela hain gatazkatua.

Kalitatearen Legea eztabaidatsua izango dela ohartzen dira, LOUrekin gertatu den bezala. Orain arte mugitu ez den hezkuntza komunitateko beste sektore bat mugiaraz dezake. Horregatik, bi lege -unibertsitarioa eta ez unibertsitarioa- dantzan edukitzea ez zaie interesatzen.

Zergatik uste duzue gizartea mugitu egingo dela? Zer da lege horrek ekarriko duena?

Fullaondo.- Hasteko, ez dute hezkuntza komunitatearen partaide garenokin harremanik izan, eta horrek gizartean ondorio batzuk izango ditu.

Bestalde, ez dakigu ziur zer ekarriko duen, ez baitugu inork ikusi eta ez baitakigu zer dioen. Prentsan agertuta-

koa soilik ezagutzen dugu eta zenbait susmo ditugu. Alde horretatik, badirudi atzerapausoa dela aurrerapausoa izan beharrean. Dirudienez edukia soilik hartu dituzte kontuan, eta ez jarrerak, prozedurak...

Horrez gain, ez dakigu zein etapari eragingo dion. Badirudi gehienbat DBHri erasango diola, baina aurreko eta ondorengo etapak ere baldintzatuko ditu.

Zabala.- Komunikabideetan zenbait gauza agertu ziren eta arrasto batzuk eman zizkiguten. Segur aski aztarra horiek hor jarraituko dute legean. Aduak prentsan agertu diren zenbait elementu eta arrasto aztertzen ari dira, eta horrek esan nahi du legeak elementu horien kontra joko duela.

Zein dira elementu horiek?

Fullaondo.- Bata ikasketa ondorengo azterketa da. Unibertsitatera sartzeko selektibitatea kendu egingo dutela diote, baina horren ordez errebaldajarriko dute. Beraz, horrekin unibertsitaterako bidea itxi egiten dute, eta irakaskuntza osoa elitistagoa bihurtzen da.

Zabala.- Ikasketa ibilbidean hiru bide ezartzen ditu. Orain arte DBHko etapa nolabait titulazio edo bide bakarra zen, nahiz eta aniztasuna gutxiago edo gehiago landu. Lege berriak hiru titulazio edo bide proposatu nahi omen ditu: zaborrena, porrot egiten duten ikasleak CIP edo garantia sozialera desbideratzeko, Lanbide Heziketa eta Batxilergoa. Hiru bideak justifikatu arren, dakarren arazoa da bakoitzari curriculum propioa egin behar zaiola, eta legeak askotan definizio mailan gelditzen dira, hots, gero finantzaketa eta ahalmenak garatzeko tresnarik ez dute bermatzen. Eta ibilbide horiek segregazioa edota bazterketa bultzatzen dezakete.

Arrizabalaga.- EAEn pil-pilean dagoen gai bat ere ukitzen du, zuzendaritza taldeena. Lege berriak zuzendaritza taldeen hautaketa aldatu egiten du. Horrela, ez luke Eskola Kontseiluak auke-



LOGSE-
rekin edukien
ehuneko bat
Eusko
Jaurjaritzaren
eta Nafarroako
Gobernuaren
eskuetan
gelditzen zen,
baina lege
berriarekin ez
dakigu hori
nola geldituko
den

hezkuntzako gizarte eragilean bilgunea

E

Gure jardunaldiak badu lotura lege berriarekin. Legea atera aurretik jendea sentsibilizatu eta prest egotea nahi dugu. Posible den neurrian, ikastetxeetara eraman nahi dugu eztabaida. Hori da politikariek egiten ez dutena eta guk egin nahi duguna

ratuko, Klaustroak baizik. Horrenbestez, gurasoak kanpoan gelditzen dira eta horrek ikastetxeetako antolaketan murritzapen garrantzitsua dakar. Beraz, badirudi handik eta hemendik hezkuntza komunitatearen partaidetza mugatzeko urratsak eman nahi direla.

Zein interes egon daiteke partaidetza hori mugatzeko?

Fullaondo.- Kontrol eta botere arazoa dela uste dut. Azken finean, ikastetxe bakoitzari bere proiektua edo irakaskuntza mota garatzeko autonomia ematea gobernuan dagoenari botere pixka bat kentzea da. Nik uste dut botere kontua dela eta kontrolatze nahia dagoela hor. Eta ez autonomia, zuzendaritzaren hautaketa eta abar kontrolatzea soilik, baita edukiak, curriculumak eta abar ere. Hots, irakaskuntzaren diseinu guztia. Horren kontrol guztia eduki nahi du, bestela ezin daiteke ulertu.

Arrizabalaga.- Betikoa da, kudeaketa eredu jakobinoa ezarri nahi dute, Frantzia bezala.

Legea espainiar estatu osorako izango da. Hemen, euskal hezkuntza sistema propioaren ikuspegitik, aipatu diren puntu horiez aparte, zer ondorio izango ditu?

Arrizabalaga.- LOGSerekin edu-



kien ehuneko bat Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren eskuetan gelditzen zen, baina lege berriarekin ez dakigu hori nola geldituko den.

Fullaondo.- Argi eta garbi dago hezkuntza sistema propioaren bidean ere beste atzerapauso bat dela, ez baitu ahalbidetuko euskal curriculumaren garapena. Ez dugu uste horri bidea irekiko dionik, alderantziz baizik.

Irakasleen mugikortasuna eta abar ere aipatzen dira, eta horrek esan nahi du curriculum bateratu batera joan nahi dutela, *una, grande y libre*. Beraz, euskal irakaskuntzari kalte handia egin diezaioke.

Legea onartzeko ohiko prozedura jarraituko da. Zer aukera geldituko da ondoren? Zer tarte geldituko da?

Arrizabalaga.- Gutxi, oso gutxi.



Fullaondo.- Hala ere, gizartearen mobilizazioak garrantzi handia du. Zeresan handia du nola mobilizatzen den eta erantzukizunak nori eskatzen dizkion. Mobilizaziorik gabe badakigu ziur ezarri egingo dela, eta kito. Gizarteari bere iritzia emateko bideak ireki behar zaizkio; gero alde baldin badago, alde dago, baina behintzat iritzia azaltzeko aukera eman. Kontrako iritzia nagusitzen bada, agintean dagoen jendeak pentsatu egin beharko du zer egin lege berriaren ezarpenarekin.

Gauzak dauden bezala egonda eta LOUrekin gertatu dena ikusita, garrantzi handia du gizartearen mobilizazioak. LOUren kasuan, izugarriko erantzun soziala izan du eta unibertsitateetako dekanoez ere parte hartu dute. Hala ere, legeak aurrera egin du, baina ikusteke dago nola aplikatuko den unibertsitateetan. Zer egingo dute? Inposizioz ezarriko dute Madrilgo parlamentuan gehiengo absolutua dagoela eta?

LOUrekin estatu guztian egon dira mobilizazioak. Kalitatearen Legea ezarri aurretik zuek ere mugitzen hasiz zarete. Nola daude gauzak beste erkidegoetan?

Zabala.- Katalunian CIUk esan du lege berriarekin kontuz ibiltzeko eta gehiago kontrastatzeko, bestela arazok egon litezkeela. Pentsatzen dugu kompetentzia gehien dituzten erkidegoetan mugimendu gehiago egongo dela. PSOEn nagusitasuna nabaria den erkidegoetan ideologikoki aurre egin beharko diote, azken finean, berriak sortutako hezkuntza lege baten kontra doan lege bat izan daitekeelako. Erantzun zabala izango duela pentsatzen dugu.

Gainera, askotan badirudi gobernu honek bere legealdian bere legeak egin nahi dituela, eta hori dela legeak aldatzeko arrazoi bakarra. Berdin du gero zer ondorio ekarriko dituen, berriak legea atera behar dute, eta kito. PSOek bazuen berea eta PPK berea



aterako du orain.

Arrizabalaga.- Eta hori lortzeko bide guztiak erabiliko dituzte. Are gehiago, beharbada legea ekainean aterako dute eta uztailean martxan jarri, hau da, ikastetxeak itxita daudenean eta hezkuntza komunitatea oporretan dagoen garaian.

Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak zer jarrera agertu dute?

Zabala.- Eusko Jaurlaritzari dago-kionez, LOUren kasuan, Anjeles Iztuetak esan zuen Hezkuntzako arduradun den heinean gizarteak esaten duena aurrera eramaten saiatuko dela. Horren haritik, erkidego honetan gizarteak esaten badu legearen aurka dagoela, administrazioaren ardura hori babes-tea eta horretarako urratsak ematea izango litzateke.

Nafarroan, LOUrekin gertatu zen bezala, defendatu egiten dute eta zenbait gauza aplikatu omen dituzte, ibilbideena, adibidez. Hainbatetan Nafarroak Madrilgo legeen laborategi moduan funtzionatu du.

Adituak
prentsan agertu
diren zenbait
elementu eta
arrasto
aztertzen ari
dira, eta horrek
esan nahi du
legeak
elementu horien
kontra joko
duela

Teknologia Berriak



Telebistaren erabilera hezkuntzan

Orain dela hogeita hamar urte jendeak telebista masen heziketarako tresna ona zela uste zuen. Gobernuek diru asko inbertitu zuten telebistaren bidez hezkuntza programak garatzeko. Beti gertatu ohi den bezala, lehenengo programak nahiko txarrak izan ziren. Idatzizko testuei irudiak erantsi baino ez zuten egiten, besterik ez. Nolanahi ere idatzizko lengoia eta irudien lengoia nahiko desberdinak dira. Imajinatu, Errusian euskaraz mintzatuko bagina, inork ez liguke ulertuko. Ez du zentzurik aipatutako bi lengoia horiek nahasteak. Beraz, hori ez dugu ahaztu behar.

Dena den, argi dago hedabideek arrakasta izugarria izan dutela. Seguraski, guraso askok seme-alabek eskolatik atera ondoren telebista gehie-



Iker LASKIBAR

Hezkuntzari aplikaturiko Teknologia Berrietan
trebatua

gi ikusten dutela pentsatuko dute. Estatistiken arabera, batez beste egunean hiru ordu ikusten dute telebista gazteek. Esan al daiteke gehiegi dela? Nire ustez, kasu honetan denbora ez

da gauzarik garrantzitsuena. Jakina da telebistaren aurrean egoten garen denbora kontuan hartu behar dela, baina agian kalitateari ez zaio behar duen garrantzirik ematen.

Gurasoek telebistari buruz duten iritzia ezkorra bada ere, telebistak ekarpen handiak bultzatzen dituzte ikasketza-irakaskuntza prozesuan. Eduki batzuk irudiekin oso ondo adieraz daitezke. Adibidez, historiako hainbat gertaera ulergarriagoak izan daitezke pantaila txikian ikusteko aukera izanez gero. Esate baterako, Berlingo harresiaren erorketa, ilargirako bidaia, sumendien erupzioak, Chernobilen gertatutakoa, baso-suteen ondorioak eta abar irudien bidez testuen bidez baino hobeto uler ditzakegu.

Gauzak horrela, sortzen zaidan galdera hau da: zergatik ez da, bada, erabiltzen telebista ikastetxeetan horrelako ondorio nabarmenak badi-tu ikasketa prozesuan? Ia inork ez dizkio ikasle bati liburuak debekatzen gehiegi irakurtzen duelako. Zergatik? Gure gizartearentzat liburuak irakurtzea telebista ikustea baino hobea delako, lehenengoek jasoagoak baitirudite. Askok diote telebista txarra daukagula, baina liburu txarrak ere badi-tugu. Gakoa ez da telebista ona edo txarra daukagun, baizik eta hedabide horri zein erabilera ematen diogun.

Hasieran kalitatea aipatu dut. Kalitatea zehazterakoan gutxienez bi aldagai eduki behar ditugu kontuan. Al-



de batetik, telebista programa bera egokia denentz; eta beste aldetik, programa hori erabiltzeko era aproposa denentz. Programa on batek ez du ezertarako balio gaizki erabiltzen badugu, eta era berean, programa txar batekin ariketa egokiak egin ditzakegu. Adibidez, jendea telebistan iragarri gehiegi sartzen dituztelako kezkatzen da, baina oso jarduera politik egin ditzakegu iragarkiak erabiliz. Galiziako eskola batean publizitateari buruzko hausnarketa interesgarriak egin zituzten. Besteak beste, galdera hauek planteatu zituzten hausnarketarako: zer ordutan sartzen dituzte iragarki gehiago? Zein motatakoak? Nori zuzendutakoak? Zein egunetan? Horiek bezala beste mila galdera sor daitezke iragarkiei buruzko hausnarketa egiteko. Froga ezazue!

Horrez gain, gelan erabil ditzakegun programak ez dute hezkuntzarako berariaz egindakoak izan behar. Adibidez, probabilitatea lantzeko James Bond-en filmaren zatitxo bat ikus dezakegu eta ondoko galderak planteatu: Kasinon dagoenean, zein da dadoetan bi seiko ateratzeko probabilitatea? Eta gauza bera berriz gertatzeko?

Telebistaren erabilerak gelako antolaketa aldatzen du. Normalean irakasleak hitz egin eta ikasleek entzun egiten dute. Teknologia berri honekin irakasleen eta ikasleen artean zegoen komunikazio zuzena galdu egiten da. Batzuen ustez, arrazoi hori nahikoa da telebista ez erabiltzeko. Haien iritziz, irakasleak etengabe ikusi behar ditu berak esaten duenari buruzko ikasleen erreakzioak. Ni ez nago ados iritzi horrekin. Ikasleen artean eseritzen bagara, beraiak pentsatzen dutenari buruzko gauza asko asma ditzakegu.

Irakasle batzuk uste dute behin telebistako programa ikusita ariketa amaitu egiten dela. Haatik, guztiz kontrakoa da. Benetako lana telebista ikusi eta gero hasten da. Telebista pro-



grama batekin informazio pila bat jaso dezakete, baina ondoren informazioa landu egin behar da. Gaur egun telebistaren munduan izugarriko garrantzia ematen zaio informazioa jakiteari, baina informazio bat gogoratzea buru eragiketarik sinpleena da -beste la ordenagailuak ez lukete egingo!-. Guri interesatzen zaiguna da ikasleek beren kabuz pentsatzea eta erabakiak hartzea; eta hori lortzeko informazioa baino gehiago behar dute.

Baina nola landu jasotako informazio hori? Ez da erraza. Guk ezin dugu egin beraien partez. Irakasleen zeregina ikasleei informazioa antolatzen laguntzea da. Hau da, informazioa erlazionatzeko, laburtzeko, aztertzeko, aplikatzeko edo ideia garrantzitsuenak azaltzeko eska diezaieke. Beraz, lanik garrantzitsuen telebista ikusi eta gero egiten da. Gaur egun informazioa edonon aurki dezakegu, baina ez gure pentsamendua, eta ezta erabakiak hartzeko gaitasuna ere.

Telebistak gero eta merkeagoak dira. Beraz, ez litzateke ideia txarra izango gela bakoitzean telebista bat jartzea. Ikusten dudana arazo garrantzitsuenetako bat klaseek telebistaren programazioaren erritmora joan beharra da, eta hori normalean ez da gertatzen. Horretarako, bideoak au-

kera interesgarriak eskaintzen dizkigu. Guk erabakitzen dugu zer, noiz eta zenbat aldiz ikusi. Hala ere, bideoari buruz datorren hilabetean hitz egingo dugu. •

“Gakoa ez da telebista ona edo txarra daukagun, baizik eta hedabide horri zein erabilera ematen diogun”

Hurrengo aldizkarian bideoa izango da hizpide



Talde kooperatiboen lana ingurunearen ezagutza arloan



Kamino ETXAGUE

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko orientatzailea

Hezkuntzaren erreforma ezarri zenetik urteak pasa badira ere, konstruktibismoak dakarren ikuspuntu teorikoa praktikan jartzea kosta egiten da. Batzuetan ziurtasun ezagatik, beste batzuetan betiko tradizioa jarraitzeagatik, eta bestetan, teoria jakin arren, nola aurre egin ez jakiteagatik.

Artikuluak honen helburuak esperientzia baten isla izatea eta adibide bezala balio izatea dira. Dena den, elementu kurrikular guztiak ez ditut aipatu, jarraitu-tako metodologia baizik, horixe baita azpimarratu nahi dudana alderdia.

Ingurunearen ezagutza arloan, ikasleek *Euskal Herria fisiko eta politikoa* ikasi behar dute. Ikasle talde baten irakasleak finkatutako helburuak, besteak beste, honako hauek dira:

- Ikasleak europar kontinentean Euskal Herria identifikatzeko gai izatea.
- Euskal Herriko herriak identifikatzeko eta izendatzeko gai izatea.
- Euskal Herriko ibai eta ibai adar nagusiak identifikatzeko, kokatzeko eta izendatzeko gai izatea.
- Euskal Herriko mendilerro, mendigune eta mendi nagusiak mapan kokatzeko, identifikatzeko eta izendatzeko gai izatea.

* Egin beharreko lanaren aurrean, irakasleak egin behar duen lehenengo gauza talde handia **motibatzea** eta **lanarekiko jarrera positiboa** agertaraztea da. Horretarako, egin beharreko lanaren aurkezpena oso inportantea da.

Irakasleak ikasle bakoitzari Euskal Herriko mapa bat egin dezan esaten dio. Berak berea klasearen aurrean aurkezten du: *MariEuskalerra* deitzen dio klaseko mapari, deskribatu egiten du, hitz egiten dio, eta klasetik eta ikaslearen aurretik paseiatzen du horman zintzilikatu baino lehenago. Modu horretan, ikasleei eurek marraztutako mapetan ere izen bana jartzeko iradokizuna luzatzen die. Norberak egindako mapa unitate didaktiko horretan laguna izango du.

* Irakasleak **hasierako ebaluaketa** egiten du, ikasleek gaiari buruz duten ezagutza antzemateko.

- Aterako diren kontzeptuei buruzko ahozko galderak egiten dizkie.
- Gaiaren eduki garrantzitsuenei buruzko galde sorta pasatzen die.
- Norberak gaiari buruzko mapa kognitiboa garatzeko proposamena luzatu eta animatu egiten ditu.

* Unitate didaktiko horretan agertzen den **edukiaren garrantzia** azaltzen die, eta aprendizaiaren **funzionaltasuna** bilatzen du. Horretarako, bizi-modu arruntan sortzen diren egoera batzuk planteatzen dizkie, zeinak gaiaren ezagutza eskatzen duten. Adibidez:

- Bidaia bat egiten dugunean, nondik pasatzen garen jakin beharra.
- Bai mendira eta bai hondartzara joaten garenean non gauden jakin beharra.
- Oporretara joaten garenean zein probintzian gauden eta hango geografia nolakoa den jakin beharra.
- Ikasleek ezagutzen dituzten mendiak, hondartzak eta hainbat leku geografiko komentatzen dituzte.

* Gelan 16 ikasle direnez, launaka jartzen ditu, **talde heterogeneoak** osatuz. Talde bakoitzean, gaiari buruzko testu ezberdin bat irakurri eta azpimarratu behar dute, geroxeago talde bakoitzaren kideen artean laburpena egiteko eta ondoren norberak bere koa-

dernoan idazteko. Idatzitako laburpenak elkarri trukatzeko, lau taldeek lau laburpenak irakurri ahal izateko.

Laburpen horiek ontzat ematen dira. Hala ere, norbaitek zerbait aldatu edota gehitu nahi badu, esan dezake, eta hala behar bada, zuzendu ere egiten dira. Irakasleak, hasieran egindako laburpenak ongi badaude ere, zertxobait hobetzen ahal direla komentatzen die. Ondoren, egindako eta zuzendutako laburpenak ozenki irakurtzen ditu irakasleak, eta norberak berea, hala behar izanez gero, berridazten du. (Gai-nontzeko hiru laburpenak irakasleak, garbira pasatuta, banatuko dizkie).

* Talde bakoitzari egoera eta ekin-tza bat planteatzen dizkio:

Lehenengo taldekideei ingeniariak direla esaten die, eta Euskal Herrian autopista batzuk diseinatu behar dituzte-nez, ibaiak eta ibaiadarrak nondik pasatzen diren kontuan hartu beharko dute behar diren adina zubi eraikitze-ko. Hori dela eta, beraiek egindako ma-pan ibai eta ibaiadar nagusiak marraztu beharko dituzte.

Bigarren taldekoak Euskal Herria zeharkatuz doazen ibiltariak dira eta bi-sitatzen dituzten herriak mapan ma-rraztu behar dute.

Hirugarren taldekideek Euskal He-rriaren gainetik doan hegazkina hartu dute. Oso eguraldi ona egiten duenez, penintsularen erliebea oso ongi bereiz-ten da. Hori dela eta, goitik ikusten diren mendikate eta mendiguneak mapan marraztu eta izendatu beharko dituzte.

Laugarren taldekoek Europako he-rrialde batera oporrak pasatzera joan behar dute, baina alde aurretik Europa kontinentea nolakoa den jakin behar dute. Horretarako, Europako mapan Euskal Herria kokatu behar dute, eta baita Europa inguratzen duten ozeano eta itsasoak identifikatu eta idatzi ere.

* Irakasleak, lana garatzen duten bitartean, ikasleak animatu egiten ditu eta baraien **lana bideratzen** du. Ikasle-ak animatzen eta motibatzen dituen el-karren arteko **komunikazio positibo**a sortzen da.



* Talde bakoitzeko kide batek gai-nontzeko taldeei egindako lana azal-tzen die. Azalpena poliki-poliki egiten duen bitartean eta esaten duenaren ara-bera, beste taldekideek mapa pertso-nala betetzen dute.

* Ikasleek **beraiek egindako lana baloratzen** eta ebaluatzen dute.

* Ebaluaketa egiterakoan, irakasle-ak ebaluaketaren funtsa zein den azpi-marratzen die; alegia zer ikasi duten, nola ikasi duten, zertarako balio dien eta zer den ikasi eta hobetu behar du-tena. **Ebaluaketak norberaren for-makuntzarako balio duela ikusta-razten die.**

* Irakasleak, unitate didaktikoa bu-katzeko eta errepasso moduan, "bat, bi, hiru, erantzun berriro" **txapelketa an-tolatzen du** eta gaiari buruzko galderak erantzuten dituzte txandaka.

* Irakasleak ikasleen lana balora-tzeko eta ebaluatzeko landutako **eduki kontzeptualak, prozedurak eta jarre-rak** ebaluatzen ditu. Hots, berak eba-luaketa egiterakoan kontuan hartzen ditu **zer** ikasi duten (txapelketa, ahozko galderak eta idatzizko galderak, egin-dako maparen bitartez), **nola** egiten duten lana (sortu den giroa eta elkar-lana nola bideratu duten, sortutako elka-rrekintza baloratuz), eta zer-nolako jar-rerak adierazi dituzten (motibazioa, gogoia eta parte-hartze maila).

Orokorrean, bai ikasleek eta bai ira-kasleek egindako balorapena oso posi-tibo izan da.

Gela batean talde lanean aritzeko ohiturarik ez dagoenean, hasieran kosta egiten da zertxobait, baina ira-kasleak zer, nola eta noiz irakatsi be-har den eta lana nola bideratu behar den argi baldin badauka, oso emaitza onak lor daitezke. •



Bibliografia:

- ALONSO TAPIA, JESUS (1994): *Motivación y aprendizaje en el aula*, Santillana SA argitaletxea.

- COLL CESAR, PALACIOS JESUS eta MARCHESI ALVAROren bilduma (1990): *Desarrollo psicológico y educación II*, Alianza argitaletxea.

- MONEREO CARLES eta SOLE I-SABEL (1996): *El asesoramiento psicopedagógico: una perspectiva profesional y constructivista*, Alianza argitaletxea.

- NAFARROAKO GOBERNUKO HEZKUNTZA ETA KULTURA DE-PARTAMENDUA: *Cajas rojas*.



Haur Hezkuntzako lehen zikloaren Arautze Dekretua Euskal Autonomia Erkidegoan



Patxi COIRA

Zarauzko Haur Eskolako hezitzailea

0-3 dekretua egiteak zalantza eta itzaropen ugari piztu ditu. Denak dira jakitun sektore horrek matrikula iturri bezala ikastetxeentzat duen garrantziaz, eta kontzertatuen eta publikoen arteko oreka beharrez ere bai. Horrekin batera, eredu aniztasunak, zikloaren banaketak, profil profesionalak eta haurren eskubideak topo egiten dute familia bizitzaren eta lan munduaren arteko adiskidetzaren diskurtsoarekin. Eta horrek guztiak Hezkuntza Sailak konpondu ezin duen sinfonia kakofonikoa dakar. Horregatik jo du Nekazaritza, Lan eta Gizarte Gaietako Sailera.

Haur eskola historikoak irabazi asmorik gabe eta bokazio publikoarekin sortu ziren eta urtetan mantendu den eredia eskaintzen dute.

Eskola bezala sendotu egin dira eta hezkuntza proiektu propioa garatu dute honako ezaugarriekin: zikloaren bakartasuna, haurren lehen-tasuna familiaren aurretik, integrazio soziala, euskalduntzea, hezkidetza, etaparen ezaugarrietara egokitutako curriculum eta abar. Eredu horrek ordutegi zabala eskaintzen du eta ez ditu heziketa uneak eta asistentziako uneak bereizten. Are gehiago, garbiketa, elikadura eta loa heziketa ikuspegitik lantzen ditu haurrekin dagoen profesionalak, hots, sinesten duen heziketa proiektua garatzen, ezartzen eta ebaluatzen du.

0-3ko eskola horiek oso anitzak dira titularitatea eta finantziarioaren aldetik begiratuta. Orokorrean garestiak dira, plaza gutxi eskaintzen dituzte eta askok oso egoera larrian biziraute dute finantziazio publikorik ez dutelako.

Eskola arruntak, legeri muzin eginez, 2 urteko haurrak oso modu desberdinean eskolatu zituen, haur horiek urte gehiago izango balute bezala eta araututako eskolako prest egongo balira bezala. Administrazioaren onarpenarekin eta lehengaien gabeziak bultzaturik, hezkuntzako sareek 0-3 etapari eraso zioten matrikulak bilatu nahian. Hala, familia denek batera

utzi zituzten euren seme-alabak eskolatan.

Egoera horren ondorioz, momentu honetan hainbat ikuspegitako eskariak daude:

1.- Sindikatuek, guraso elkarteek, unibertsitateek, pedagogia erakundeek eta haur eskolen koordinakundeak osatutako 0-3 Mahaiaik hainbat gauza eskatzen ditu: zikloaren bakartasuna, lan baldintza berdinak dituen profil profesional bakarra, eskola historikoak errespetatzea eta hiritar bezala eskubide osoa duen haurren behar biologikoak, kulturalak eta pertsonalak errespetatzea. Aldi berean, eskaintza publiko zabala eta ongi finantziatua eskatzen du. EAeko Haur Hezkuntzako eskola mapa finantziaztea, arautzea eta egitea Hezkuntza Sailaren ardura dela errepikatzen du behin eta berriro.

2.- Ikastetxe pribatuetako patronalak, nahiz eta oraindik bere diskurtsoaren berririk ez eman, bere praktikarekin agerian jartzen du 0-3 etapa bere osotasunean eskaintzeko interesa. Hori bai, irakurketa guztiz ezberdinarekin: 0-2 etapa ez bada hezkuntzako etapa kontsideratzen, magisteritzako tituludunak edo Haur Hezkuntzako teknikoak kontratatzen jarraitu ahal izango dute, eta erdi prezioan. Denok da-

kigu normalean eskola pribatuan 90.000 pezeta (541 euro) irabazten direla egunean zortzi ordu lan eginez 0-2 urteko hurrekin, aldi baterako kontratupean eta ezinezko ratioekin. Bien bitartean, zentro berean urtebete zaharragoak diren hurrekin lan egiten dutenek ia hirukoitza irabazten dute hurrekin bost ordu soilik egonda. 0-2 etapako profesionalak hezitzailetzat hartzen ez direnez, hurrek ikasle statusik ez dutenez, *denak balio dudu* ria aurrezearren. Okerrena zera da: egoera hori iraunkorra bihur daitekeela Eusko Jaurlaritzak modu baikor batean esku hartzen ez badu hurrak eta hezitzaileak defendatzeko.

3.- Bestalde, urte hauetan 2-6 urteko hurrekin lan egin duten Haur Hezkuntzako profesionalak daude, bai sare publikoan eta bai pribatuan. Eskumenak eta eskuratutako eskubideak direla eta, urduri daude hurrekin ikasgelatik jangelara jaitsi beharko dutelako. Izan ere, 0-3 etapako heziketa planteamenduak ohiturak eta eguneroko jarduerak heziketa laneko oinarritzko osagaitzat hartzen ditu. Hori ekiditeko (berez Magisteritza ikasketetan 0-6 etapako Haur Hezkuntza espezialitatea hautatu aurretik egin behar zuketena), Laguntzailearen figura proposatzen dute. Laguntzaile horrek irakasleak baino maila eta soldata bajuagoa edukiko lituzkeela onartzen da, eta bere zereginak oinarritzkoagoak izango lirateke: hurrak elikatzea, garbitzea, fardelak aldatzea, lo eginaraztea eta beraiekin jolastea irakasleak ikasgelara itzuli eta berriro *irakasteko* zeregin prestuarekin hasi bitartean. Egoera hori gogorra izan daiteke 2 urteko hurrekin, baina benetan irrigarria da urtebeteko hurrekin eta ikaragarria sehaskako hurbatentzat. Eredu viktoriarra izango litzateke; neskameak hurre garbitu eta andereñoak irakatsi. Haatik, kostuak murrizten dituen



eredua da, andereñoek gustatu egiten zaie, eta seguraski Hezkuntza Sailari eta ikastetxe pribatuetako patronalari ere bai. Zorionez, senonak etapa horretan laguntzaileak ez daudela esaten digu (teknikoak eta irakasleak baino ez daude). Denok dakigun bezala, haur txiki barentzat oso garrantzitsua eta hezigarria da pixontzia edo goilara erabiltzen ikastea eta maite duen eta eskolan laguntzen dion erreferentziatzako pertsonarekin seguru sentitzea. Ez tratuak, ez lanak, ez soldatak eta ez egutegiak ez dute desberdinak eta diskriminatzaileak izan behar Haur Hezkuntzan lan egiten dutenentzat.

4.- Denbora guztian hezkuntzaz hitz egiten badugu, gurasoen familiarako eta laneko beharrak kontuan hartu beharko dira bai urtebeteko haurarekin eta baita 4 urtekoarekin ere. Ezen, adin horietan hauraren autonomia murrizta da eta heldu baten laguntza behar dute uneoro, bai bakarka zein taldeka. Horrenbestez, iruzurra da adin tarte bat asistentziala izendatzea eta beste hezitzailea. Adjektiboa batean zein bestean jarri, eskolak lagundu eta hezi biak egiten ditu adinguztietan, baita goiko mailetan ere. Bartzuek diote hurrek eskolan ikasten dutela pentsatzen, baina helduek, eta batez ere 0-3 etaparen etorkizuna erabakiko duten helduek eta haurren gurasoek, Haur Hezkuntzako zentro batera joan beharko lukete astebete pasatzera eta hurrengandik ikastera. Neska-

mutil horiek ikasgai ahaztezinak irakatsiko lizkiekete:

- Trata itzazue gure andereñoak merezi duten bezala: beraien pazientziak, ardurak eta ahaleginak ez dute preziorik.

- Ez gaitzazue utzi eskolan zuek egon nahiko ez zenuketena baino denbora gehiago, zuekin bakarka ere egon nahi dugu.

- Haur guztiek beste hurrekin jolasteko eskubidea dute, eta eskola batean; ez dadila inor kalean geratu.

- Errepide gutxiago eta eskola gehiago doan. Aitak eta amak haur gehiago izan ditzaten nahi baduzue, igo soldata, jaitsi hipoteka, eta gaintzekoa egingo dute beraiek; baina eskola, dohainik. Eskerrik asko.

0-3 etapari dagokion dekretua egiteko Eusko Jaurlaritza eragile inplikatuarekin kolaboratzen ari da, eta hori seinale ona da, demokrazia parte-hartzailearen ariketa bat. Hezkuntza Saila benetan egungo nahaspila antolatzeke gai izango ote den erakutsiko diguten adierazleak hauek izango dira: eskaintzari erantzutea, hezkuntza ereduaren kalitatea, lanpostuen sorrera eta horien kalitatea, eta azkenik, instituzio publiko bati hala dagokiolarako, Haur Hezkuntzako lehen zikloko lan eskaintza publikoa handitzea.

Datuak ez badira positiboak, makillaje operazio baten aurrean aurkituko gara, ontzia aldatuko dute, baina edukia ez. Horrela ez izatea espero dugu. •

mari carme boqué



Oso garrantzitsua da gatazkak tratatzeko
modu konstruktibistak, positiboak eta sortzaileak
ikastea



Irakaslea, pedagogo eta bitartekaritzan graduatu-ondokoa

Hik Hasi II. Udako Topaketetan Gatazken tailerra dagokion irtenbidekin izeneko saioa eman zuen Mari Carme Boqu katalanak. Aspalditik dabil gai hori lantzen; hasieran bere kontura eta ondoren Rosa Sensat erakundean. Gai horren inguruan interesatutako eta sentsibilizatutako pertsonak talde bat osatu zuten, eta gerostik arrakasta handia izan duten ikastaroak antolatu dituzte; bai Rosa Sensaten eta baita Hobetuz eta Garatu bezalako Kataluniako formazio programetan ere.

Gua de la Mediación Escolar izeneko gida bat egina du. Gatazka-karen gaia lantzeko ikasleekin egin daitezkeen ariketak eta adibideak biltzen ditu bertan.

Hik Hasi II. Udako Topaketetan eman zuen saioa interaktiboa izan zen; gatazka ardatz bezala hartuz eta hortik abiatuz, ikasleekin batera elkarriketaren eta bakearen kultura nola sor eta landu daitezkeen hausnartzeko aukera ireki zuen.

Zer transmititzen zenuen gatazken inguruko saioetan?

Batez ere, eskolan nahiz eskolatik kanpo bizi ditugun gatazkek gure bizitzaren zati bat osatzen dutela. Oso garrantzitsua da gatazkek tratatzeko modu konstruktibistak, positiboak eta sortzaileak ikastea. Eta modu horietan oso garrantzitsua da pertsonak kontuan izatea.

Gatazka bat sortzen denean banatu egiten gara, bestea etsaia dela pentsatzen dugu eta irabazi egin behar diogu. Orduan, gatazkek biko ikuspegitik fokatzen ditugun bakoitzean, mugak jartzen ditugu. Aldiz, ikuspegi naturalago batetik fokatzen ditugunean, gatazka horiek geure burua prestatzeko eta ikasteko aukera bihurtzen dira.



Zeinda saio horien azken helburua?

Bakoitzak bere bizitzan protagonismo handia daukala konturatzea, eta bere inguruko egoerak aldatzeko gai dela jabetzea. Ez gara ahalegintzen eraginkorrak izateko teknikak irakasten, hau da, lau gatazketatik hirutan irabazi dugula esateko teknikak. Aitzitik, kultura aldaketa bilatzen ari gara, besteengana irekitzen eta denok parte har dezakegula konturazten.

Nola lortzen da hori?

Ekintza ugari egiten ditugu, saio bivalentzialak egiten saiatzen garelarik. Izan ere, oso ohituta gaude gatazkei buruz hitz egiten eta ondo edo gaizki dagoen epaitzen. Epaileak gure ordeztan erabakitzen duen sistema batean ohituta gaude. Horregatik, hori aldatzeko eta norberak duen protagonismoa eta zeresana berreskuratzeko, ekintzak planteatu eta praktikan jartzen ditugu.

Zer nolako ekintzak dira?

Ekintza guztiak zenbait atalen ingurukoak dira. Atal bat gatazka ulertzearena da. Gatazkek nola aztertu, zer elementu dituzten, nola esku hartu, gure inguruan zein gatazka dauden ikusi, nola sortzen diren, nola konpon daitezkeen eta antzeko gauzak aztertzen dira atal honetan.

Beste bat komunikazio irekia da. Niri komunikazio irekiaz hitz egitea gehiago gustatzen zait, eta ez komunikazio eraginkorraz. Hori teknokratikoa da, irakatsi dizutena zure mesederako erabil dezakezularik eta besteei kalte eginez. Komunikazio irekiak, ordea, zuk dakizuna edo zuregan piztu dena besteei ezagutaraztea esan nahi du. Horregatik, elkarren arteko ezagutza bultzatzen duten ekintzak egiten ditugu hasieran. Zeren beste pertsonak baliabide onak baitira guretzat, ez dira etsaiek edo ezezagunak.

Bitartekariak ez diote gatazkari irtenbidea ematen, baizik eta giroa, espazioa, denbora eta komunikazio modua sortzen dute inplikaturako pertsonak soluzioa bila dezaten

Aho hizkuntza eta gorputz hizkuntza ere asko lantzen ditugu.

Emozio eta sentimenduen adierazpena da beste atal bat. Hutsune izugarria daukagu gure adimen emozionalan. Eta gatazketan beti present daudenez, kontuan hartu behar ditugu pertsonari tratamendu integrala emateko.

Beste atal bat pentsamendu trebezina da. Besteen ideiak argudiatzen ditugu eta kontra egin. Hori guztia taldean egiten dugu, eta ideia berriena eta sortzaileena ateratzen duen pertsona da benetan bere ingurunea aldatzea lortzen duena.

Partaidetza aktiboa bultzatzen dugu denek parte har dezaten.

Elkarbizitza baketsua garrantzitsua da ikastetxearen barruan zein kanpoan.

Beligerantzia positiboa ere aintzat hartzen dugun beste atal bat da. Izan ere, pertsonak ez dute lasaitu behar gatazka beren ingurunera egokitu dutenean soilik, baizik eta ingurune globalekin inplikatu ondoren, beste batzuk beraiek bezala edo okerrago daudelako.

Azkenik, bitartekaritza prozesua beraizterten da. Bitartekaritza kanpoko hirugarren pertsona batek zubi lanak egitea da.

Kataluniako zenbait ikastetxetan Bitartekaritza Zerbitzua dago. Zer da hori?

Gatazkak konpontzen laguntzen duen zerbitzua da. Oraindik esperimendu fasean dago eta ikastetxe guztietan ez dago berdin antolatua; bakoitza egokia iruditzen zaion moduan antolatzen ari da.

Zerbitzu horretan gatazkak konpontzen laguntzen duten bitartekariak daude. Haatik, bitartekariak ez diote gatazkari irtenbidea ematen, baizik eta giroa, espazioa, denbora eta komunikazio modua sortzen dute inplikaturako pertsonak soluzioa bila dezaten.

Zerbitzua borondatezkoa eta konfidentziala da. Gainera, boterea pertsonen eskuetan dagoela bermatzen da eta hori asko apreziatzen da; hau da, norberak erabaki eta esan ahal izatea gauzak.

Nola laguntzen dute bitartekariak gatazkak konpontzen? Zein baliabide erabiltzen dituzte?

Bitartekariak gatazka duten pertsonak beste espazio eta denbora batean kokatzen dituzte. Pertsona horiek dagoeneko ez dira bereiztutako edo banatutako pertsonak, baizik eta gatazka batek lotutako pertsonak. Behin batak besteari (edo besteei) entzun ondoren, eta bakoitzaren ikuspegi eta sentimenduen berri jakin eta gero, irtenbideak bilatzen laguntzen diete bitartekariak. Ondoren, inplikaturako pertsonak baloratu, aukeratu eta beraiei egokiena iruditzen zaien erabakia hartzen dute. Azken finean, beraiek pentsatu duten moduan jartzen dute praktikan irtenbide hori.

Nor dira zerbitzu horretara joaten direnak?

Beti gatazkan inplikaturako dauden pertsona guztiak joaten dira. Esperientziak erakutsi digunez, irakasleei askoz ere gehiago kostatzen zaie ikasleekin bitartekaritza prozesu batean parte hartzea. Izan ere, hasieran autoritatatea galduko ote duten beldur izaten dira. Eta probatu dutenek behin eta berriro errepikatu dute, ez baitute autoritatetik galtzen, errespetua eta konfiantza irabazi baizik.

Gainera, askotan ikaslea hobeto ezagutzeko modua izaten da. Ezen, irakasle rolean bete-betean sartzen denak eta irakasteko soilik dagoela uste duenak, sarritan ez daki nori irakasten ari den. Eta noski, ikaslea ezagutzen ez badu, askoz okerrago irakasten du.

Bitartekaritza Zerbitzua duten ikastetxeak nolakoak dira?

Orain dela pare bat urte Katalunian bospasei ikastetxe ziren zerbitzu hori zutenak eta guztiak Bigarren Hezkuntzakoak ziren. Pixkanaka, ordea, geroz eta gehiago hedatzen ari da.

Dena dela, argi utzi behar da ikastetxe batek Bitartekaritza Zerbitzua edukitzeak ez duela esan nahi ikastetxe gatazkatsua denik, baizik eta zentro horretan badakitela gatazkak ikaskuntzaren iturri direla eta guraso, irakasle, ikasle, langile ez irakasle eta han dauden pertsona guztien artean harreman eta giro ona baldin badago, ikastetxearen funtzioak berme askoz gehiagorekin burutuko direla.

Bitartekaritza Zerbitzurik ez dagoen eskoletan gatazkak konpontzeko ikastetxeako araudirajotzen dute. Zerbitzu hori dagoen eskoletan, ostera, hara jo dezake.

Zerbitzua ongi antolatuta baldin badago, bitartekariak denen artean aukeratzen dituzte. Normalean bi bitartekari egoten dira gatazka egoera bakoitzean, gauza ugari hartu behar baitira kontuan: ahozkoa ez den lengoia, bakoitza nola sentitzen den... Zenbait ikastetxetan bitartekariak neska-mutilak dira, ikastetxeako ikasleak beraiek. •

Bide eginean jarraitzen
dugu zuen ekarpenekin
eta parte-hartze
handiagorekin aberastu
nahi dugularik.

Hik Hasi proiektua irekia
den heinean, interesa
duen edonoren parte-
hartzea gustu handiz
hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa
euskal hezkuntzaren
aldeko ekimen honetan.



Berriak otsaila

Ikastolen Elkartearen IX. Jardunaldi Pedagogikoak

posamena eta Laskorain Ikastolako esperientzia. Emailak: Antton Amondarain Ordiziako Jakintza ikastolako irakaslea eta Emeterio Zaldibia Tolosako Laskorain ikastolako irakaslea.

16:00-17:15 *Hizkuntza normal-kuntzarako proiektuak EAEn.* Emaila: Iñaki Artola Hekzuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko NOLEGAko arduraduna.

17:15-18:30 *Erabileraren neurketa ikastetxeko eremu informaletan. SEI elkartearen ikerketa. Galdakaoko Eguzkibegi ikastolako esperientzia.* Emailak: Olatz Altuna SEI elkarteko Ikerketa Saileko arduraduna eta Ana Mezo Galdakaoko Eguzkibegi ikastolako ikasketaburua.



Aurten Ikastolen Elkarateak antolatutako IX. Jardunaldi Pedagogikoak otsailaren 19, 20, 21 eta 22an egingo dira Donostiako Miramon Teknologia Elkartegian. Gaia *Euskararen erabilera* izango da. Batetik, ikastoletako egoerari egingo zaio so, eta bestetik, normalizazio prozesuan lanean ari diren gainerako erakunde publiko eta pribatuen jarduna aztertuko da.

Lau egunetan zehar luzatuko dira jardunaldiak eta egun bakoitzean launa hitzaldi izango dira:

Otsailak 19, asteartea

9:30-10:45 *Ikastolen Hizkuntza Proiektua (IHP).* Emailak: Itziar Elorza Ikastolen Elkarteko hizkuntza aditua eta Erramun Osa Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko Hizkuntza Proiektuaren arduraduna.

10:45-12:00 *Euskaraz Bizi lan pro-*

Otsailak 20, asteazkena

9:30-10:45 *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hurbilpen teorikoak.* Emaila: Mikel Zalvide Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Euskara Zerbitzuko burua.

10:45-12:00 *Euskarari eta euskal kulturari buruzko euskal eskolaren erronkak.* Emaila: Xabier Garagorri UPV/EHUko Didaktika eta Antolaketa Departamentuko irakaslea eta GIEko Pedagogia aholkularia.

16:00-17:15 *Etorikizuna aurreikusiten 99. Euskal Herriko gaztetxoak eta euskara.* Emaila: Iñaki Martinez de Luna UPV/EHUko Soziologia-2 Saileko irakaslea.

17:15-18:30 *Hizkuntzaren adierazkortasuna eta sormen ahalmena. Gazteak eta euskara mende hasieran.* Kike Amonarriz soziolinguista eta Argiako Sustapen Saileko arduraduna.

Otsailak 21, osteguna

9:30-10:45 *Eskolen eta herrietako euskara elkartean arteko osagarritasuna euskararen normalizazio prozesuan.* Emaila: Iñaki Arruti Lasarte-O-

riako Udaleko euskara teknikaria.

10:45-12:00 *Hizkuntzaren zeharkotasuna. Britania Handiko eredu.* Emaila: John Clegg Britania Handiko Londreseko hezkuntza aholkularia.

16:00-17:15 *Hizkuntzen proiektu integratua.* Emailak: Rosa Martinez Bartzolanako Villa Olimpikako CEIPko zuzendaria eta M^a Teresa Serra aipatu ikastetxeko ikasketaburua.

17:15-18:30 *Bertsolaritzaren ekarpena ahozotasunaren trebakuntza.* Emailak: Nagore Soroa AIFeko Bertsolaritza programen arduraduna, Mikel Mendizabal GIEko Bertsolaritza programen arduraduna eta Juanjo Respaldiza BIEko Bertsolaritza programen arduraduna.

Otsailak 22, ostirala

9:30-10:45 *Hedadura urriko hizkuntzen sustapena eta defentsa Burselatik.* Emaila: Johan Haggman Europako bulegoko hizkuntza gutxituetarako proiektuen arduraduna. Eta *Euskararen aldeko hizkuntza politika baten sorrera eta aplikazioa Iparraldean.* Emailak: Max Brisson Iparraldeko Departamentu Orokorreko Kontseilari

Nagusia eta Jean-Claude Iriart Euskal Herriko Hautetsien Kontseiluko zuzendaria.
10:45-12:00 *Eusko Jaurlaritzaren euskararen normalkuntzarako politika*.
Emaila: Lorea Bilbao Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetzako Euskara sustatzeko zuzendaria.

Informazio gehiagorako:
Arabako Ikastolen Federakundea
(Joseba Aginagalde)
Tel.: 945 23 33 55
Faxa: 945 13 53 21
E-posta: aif@ikastola.net

Gipuzkoako Ikastolen Elkartea
(Juanjo Gomez eta Zuriñe Mendizabal)
Tel.: 943 44 51 08
Faxa: 943 46 52 94
E-posta: gie@ikastola.net

Barakaldoko Jardunaldi Pedagogikoak

Beste urte batez Barakaldoko Jardunaldi Pedagogikoak abian dira. Oraingoan, ordea, Berritzugunea da antolaketaz arduratu dena, PATi lekukoa harturik. Aurtengo jardunaldien gaia *Aniztasunean elkarrekin bizi* da. Errespetuan eta denon partaidetzan oinarritutako elkarbizitza eredu bultzatzeko hainbat alor jorratu behar dira, eta horretan laguntzeko asmoz antolatu dira jardunaldiak. Haurkietatik gain, ikasgelara zuzenki ailegatzen diren diseinu proposamenak eta ekintza praktikokoak bilatzeko eta aztertzeko parada izango da ikastaro horietan.

Ikasturtea amaitu bitarteko eskaintza oinarriaren barnean daude ondorengo ikastaroak.

Otsailaren 20ko **Aniztasunean elkarrekin bizi** hitzaldia da jardunaldietako ikastaro nagusia. Barakaldo Antzokian izango da goizeko 10:00etan hasi eta egun osoz. Egitaraua honakoa da:

10:00etan XV. Jardunaldi Pedagogikoen aurkezpena

10:30ean *Trabajar desde la Diversidad. Avanzar en la convivencia. Claves para mejorar una realidad conflictiva* hitzaldia Elena Martín Madrilgo Unibertsitate Autonomoko irakaslearen eskutik.

12:00etan atsedenaldia

12:30ean *Mejora del clima escolar. Intentar que todos tengan cabida* hitzaldia eskainiko du Nélida Zaitegi Harreman eta elkarbizitzako teknikoa.



14:00etan bazkaria.

17:00etan *El mérito de la labor docente* hitzaldia emango du Bernardo Atxaga idazleak.

18:00etan atsedenaldia.

18:30ean Barakaldoko ikastetxeetako komunikazioak eta esperientziak.

19:30ean amaiera.

Martxoaren 1, 2, 8 eta 9an **“Matematiken irakaskuntza eta ikaskuntza”** ikastaroa egingo da. 11 ordukoa izango da eta Bilbon irakatsiko du Carlos Gallego emaileak.

Martxoaren 4an **What's on after the early introduction of English in**

our educational system? ikastaroa egingo da Sestaoko Berritzegunean. Itziar Hormaza eta Charo Perez Iturbe arduratuko dira Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleei zuzendutako ikastaro hori emateaz.

Martxoaren 4, 5, 6 eta 7an **Oinarrizko Interneta** izango da aukeran Barakaldoko Gaztetan gunean. Interes duen edozein irakasleri irekita dagoen ikastaroa da.

Egun beretan beste ikastaro bat izango da Barakaldoko Berritzegunean: **El aprendizaje social para la convivencia: habilidades sociales y aprendizaje cooperativo**. DBH eta DBHOko irakasleei zuzenduriko ikastaroa da eta bi emailek eskainiko dute: Juan Ignacio Garijo Pariente eta Jose M^a Millán Estébanez.

Martxoaren 7an El Regato ikastetxean **Cómo organizar el equipo directivo** ikastaroa eskainiko da. Alejandro Campo eskola antolaketako koordinatzailearen esku egongo da Barakaldoko Berritzeguneko Haur eta Lehen Hezkuntzako Zuzendaritza Taldeen Mintegiari bideratutako ikastaro hori.

Informazio gehiagorako:

Barakaldoko Berritzegunea
Zumalakarregi, 21
48903 Barakaldo
Tel.: 94 4902300
Faxa: 94 4970068
E-posta: patbarakaldo@ctv.es

Gurasoentzat hitzaldiak Irungo Txingudi ikastolan

Urtero bezala, aurreneko gurasoentzako hainbat hitzaldi prestatu dituzte Irungo Txingudi ikastolan. Dagoeneko horietako batzuk burutu badira ere, oraindik badira interesgarriak diren beste pare bat hitzaldi.

Otsailaren 14ean *Elikadura aberatsak, osasungarriak, hazkundera eta osasunean duen eragina* hitzaldia izango da. Hizlaria M^a Teresa Gaztañaga nutrizio sendagilea eta "Kirolarte"ko koordinatzailea izango da.

Otsailaren 21ean *Errespetuan eta konfiantzan hezi* gaia landuko da Nekane Navarro psikologoa eta terapeutak eskainiko duen hitzaldian.

Bi hitzaldiak Ametsa Abesbatzaren aretoan izango dira, Irungo Istillaga plazako 5. zenbakian arratsaldeko 19:00etan.



HUHEZIk on line eskaintza zabaldu egingo du

Mondragon Unibertsitatearen Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak zabaldu egingo du on line eskaintza. Hemendik aurrera sarean, kursoak ezezik, moduluak eskaintzen ere hasiko da.

Eskaintza horren bidez, beste jende baten premiak bete nahi ditu HUHEZIk, titulurik behar ez baina bere burua jantzi nahi duen jendearenak, hain zuzen.

Hala ere, modulu bakoitzak hainbat kreditu balio izango du. Beraz, modulu horiek gero beste ikasketa batzuk egin nahi dituenarentzat ere balio izango dute.

Hasteko, modulu bakarra eskainiz hasiko bada ere, poliki-poliki zabalduz joango da on line moduluen eskaintza.

Gizarte Psikologia modulua izango da lehenengo eskaintza. Horrek datorren ikasturtean Psikopedagogia egin nahi dutenentzat edo besterik barik bere burua jantzi nahi duten guztientzat balio izango du.

Gaia *Gizarte Psikologia: gizabana-koa eta gizartearen arteko elkarrekin-tzak* izango da. 6 kreditu izango ditu eta ikasleak tutorearen laguntza edukiko du. Modulua 2002ko otsailaren 25etik maiatzaren 31ra bitartean emango da. Matrikulazio epea, aldiz, otsailaren 1etik 15era bitartean izango da.

Matrikula eta informazioa: HUHEZI, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea idazkaritza@huhezi.edu edo 943 71 41 57 (Matilde Sainz).

2002ko kantu txapelketak abian dira

Aurtengo **Nafarroako Haur Kantari Txapelketa** prest du Kantuzaleen Elkartek, eta izena emateko epea irekia dago otsailaren 15a bitartean. Edozein ikastetxetako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek parte har dezake, bai banaka, binaka edota taldeka. Euskaraz kantatu beharko dute, eta kanta zahar eta berriak aukera ditzakete, betiere herritar eran abestuz.

Kanporaketa egunak eta lekuak finkaturik daude, eta baita finalekoa ere:

Otsailaren 23an, 17:00etan Doneztebete Bortatxo dantzalekuan.

Martxoaren 2an, 11:00etan Lizarrako Golem zinematokian.

Martxoaren 9an, 17:00etan Tuteran.

Martxoaren 17an, 11:00etan Uharteko Iruñeko Ugarrandia kiroldegian.

Eta finala **martxoaren 24an**, 11:00etan Iruñeko Gaiarre Antzokian.

Gipuzkoako **Euskal Kantu Txapelketa** ere bere bideari ekin dio. Berau 15 urtetik gorakoentzat izango da. Banaka, binaka edo taldeka aurkeztu ahal izango da, taldeak gehienez 10 lagunekoak izan daitezkeelarik. Aurreko urteetan Euskal Herriko Txapelketa irabazi dutenek ezingo dute esku hartu.

Txapelketa hiru martxoa eta apirilean egingo diren hiru ekitalditan gauzatuko da, nahiz eta oraindik egunak eta tokiak zehazteke egon.

Informazio gehiagorako:

Nafarroako Kantuzaleen Elkartea
Descalzos kalea 50, behea
31001 Iruñea
E-posta: euskokultur@terra.es


Gipuzkoako Kantuzaleen Elkartea
Telekopia: 943 49 38 42
Telefona: 656 70 84 46
E-posta: kantuzale@euskalnet.net

Argitaipenak



Bat soziolinguistika aldizkaria
40. zkia
SEI

Azken zenbakian Quebec-eko hizkuntz egoera aztertzen duten bi artikulu biltzen dira. Elkarrizketan ere herrialde horretako gaia jorratzen da Jean Darion-ekin. Bera Quebec-eko ordezkari nagusia izan da Tokion azken sei urteotan. Kasu honetan etorkinen integrazio soziolinguistikoaz mintzo da. Azkenik, Euskal Herriko hizkuntz egoeraren inguruko beste bost idatzi jasotzen dira •




Galtzerdi suizida
Mariasun Landa
Elkarlanean

Izenburu bitxi honen azpian galtzerdi batek bere gorabeherak kontatzen ditu lehenengo pertsonan. Abentura eta hausnarketaz betetako liburua da, fikziozko kontakizunak eta egunero errealitateko kontuak nahasten dituena, eta hortaz, egokia da gazte nahiz helduentzat. Ilustrazioak ere aipatu beharrekoak dira, Antton Olariagaren marrazkiek egitura txukun eta erakargarri jantzi baitute liburua •



Mikela nahastuta dabil
Mecè Arànega
Ibaizabal

Mikela igela bildumako seigarren liburua honek izen bereko igel txiki eta lotsatiaren abenturak kontatzen ditu. 2-6 urte bitarteko haurrei bideratuta dagoen material honetako testuak koloretan egindako ilustrazio handiekin osatuta daude. Haur txikiak Mikela igelarekin identifika dezakete beren burua, eta haren beldurrak, lotsak eta abenturak bere egingo dituzte liburua irakurtzen hasi bezain azkar •




Errima errebeldeak
Roald Dahl
Zubia

Idazle galestar errebelde honek oso gustuko du jende helduaren mundu arrazionala hankaz gora jartzea. Liburu honetan errima hartuko du konplize sei ipuin klasiko ezaguni buelta emateko: Mari Errauskinek bazterrak harrotuko ditu jauregiko dantzalekuan, Edurnezuri auto-stoppez ibiliko da eta Hiru Txerriok Txanogorritxori eskatuko diote laguntza. Eta otsoa? Otsoak Gorritxoak ikusiko ditu, bai horixe! •



Risky, zaude geldirik!
Joxe Mari Iturralde
Erein

Auskalo Bumeran bildumako liburua hau 11 urtetik aurrerako haurrentzat da egokia. Riskyren eta bere lagunaren abenturak dira kontagai 92 orrialdetan zehar. Elkarrizketa bizi eta zuzeneko liburua arina eta ulertaraza egiten dute. Kontakizunaren haria ere etenik gabe eta erritmoa mantenduz luzatzen da. Tartekatuta dauden Jon Zabaleta ilustratzailearen irudiek ere bizitasuna eta mugimendua ematen diote liburuari •



Tamarindoaren zainak
Sindo Pacheco
Giltza

Periskopio bilduma lan hau Edebé sariko finalista gelditu zen. Tony gazte kubatarra du protagonista eta besteak beste nerabeen gaia, sexualitatea, familiako harremanak, eskolako irakaskuntza eredu eta Kubako egoera politiko eta soziala gaiak agertuko dira. Hori guztia, noski, bere nortasuna eta erreferentia bilatzen ari den gaztearen ikuspegitik. Egileak beste hainbat liburua idatzi ditu, eta horiekin irabazi dituen sariak ere ugari dira •

IKASen ikasmaterial berriak: Grafismoa eta Idazkera

Lehen pausoa, beraz, grafiak (marrak, lerroak, biribilak eta abar) lantzea izanen da. Hurrengo urratsa, eskolaurreko azken urtetik gora, zeinu horiek letrak moldatzeko xedearekin lantzea izanen da. Horri jarraiki, azken helburua idazkera kurtsiboa da. Prozesu hori guztia urratsez urrats jarraitu ahal izateko, liburu bakoitzak Erakaslearen gida du.

Liburuaren edukia

Grafismoa liburua zazpi zatitan edo gaitan banatzen da eta orotara 127 fitxa ditu. Zati bakoitzaren hasierak gaiaren araberako ilustrazioa du. Ondoren, fitxa bakoitzean bi zeinu grafiko lantzen dira. Eta bukatzeko, gaiari dagokion azken fitxa ebaluaketako egiteko prestatua dago. Haurrak aurreko fitxetan landutako guztia menperatzen duen edo ez ikusteko baliagarria da irakaslearentzat. Fitxa horiek hainbat trebetasun lortzeko balio dute: eskuak trebatzeko, keinu grafikoak garatzeko, zeinuak zehazki egiteko, zeinuak bereganatzeko eta haiei esanahia emateko eta begien eta gorputzaren arteko koordinazioa finkatzeko.

Oro har, ikasmaterial horren erabilpenarekin eskolaurreko lehen zikloaren erditi aurrera haurrak hainbat gaitasun lortzea da xedea. Besteak beste, orriaren espazioa erabiltzea, hainbat zeinu ezagutzea, berak

zeinuak berriz egitea, idazteko tresna eskuan ongi atxikitzea, idazteko orduan behar bezala jartzen ikastea eta manuen ulertzea.


Idazkera helburu bigarren liburuari dagokionez, 33 fitxa ditu. Horietako bakoitzak euskal alfabetoaren letra bat idazten erakusten du, bai eta euskaraz arruntak zaizkigun dd, ll, rr, tt, ts, tx eta tz soinuak transkribatzen ere. Fitxa bakoitzak bertso bat dauka eta saioa horrekin hasten da. Ahozkoaren eta idatzizkoaren lotura egiten du, eta gainera, bertsoak idazki edo idazki-zati gisa lantzen dira. Horrela, moldatuko duen letrari esanahia aurkituko dio haurrak. Jarraian, bertsoari dagokion marrazkia dago haurrek margo dezaten. Ondoren, letrak moldatzeko egin behar diren zeinuak agertzen dira, eta baita letra, silaba edo hitzak ere. Bakoitza lerro batean dago, haurrak lerro horretan dagokion letra idatz dezan. Gero, bertsoari lotutako beste marrazki bat agertzen da, eta azkenik, letrari dagokion zeinu berezi bat berriz lantzen da.

Ariketa horien helburu orokorra idazkera kurtsiboan trebatzea da. Zehatzago esanda; haurrak orriaren espazioa ongi erabiltzea, zeinuak ezagutzea, zeinu horiek lerro zuzenetan egitea, idazten saiatzea eta idazkera kurtsiboan zeinuak menperatzea.

Ikas Euskal Pedagogia Zerbitzuak bi ikasmaterial berri kale-ratu ditu: *Grafismoa* eta *Idazkera*. Eskolaurreko haurrei bideraturiko bi liburu horiek zeinuak eta letrak idazten trebatzeko lagungarri izatea dute xede.

Liburu hauek aurretik argitaratutako *Kantirurieta Hatz eta behatz* materialen jarraipena osatzen dute. *Kantiruri* musika, hizkuntza eta motrizitatea lantzeko zen; *Hatz eta behatz* behatz eta eskuen mugimenduak trebatzeko balio zuen; eta orain, *Grafismoa* eta *Idazkera* liburuak hitz osoak idazten ikasteko balio dute. Laupabost urteko haurra zeinu grafikoak marrazten hasten da: marrak, lerroak, biribilak eta abar. Emeki-emeki letrak moldatzen ditu eta azkenik hitz osoak. Horretara heltzeko, urraspide bat jarraitu behar du, eta liburuok bide bat proposatzen dute.

Hasteko, eskolaurreko 2. urtetik goiti zeinu grafikoak gaika lantzea proposatzen dute, errazenetik zailenera. Horretarako, hainbat fitxa biltzen dira liburuotan. Gainera, fitxa horiek ikasgelan lantzen diren gaietan barna sartzeko baliagarriak dira. Adibidez, urtaroei dagozkien fitxen bitartez horietako bakoitzari dagokion hiztegia aberasteko balio dute.



h i s t o r i a k o

z e r t z e l a d a k

Behartsuen unibertsitatea: arte eta lanbide eskolak Euskal Herrian



Paul D VILA

EHUko Pedagogia Fakultateko Hezkuntzaren Teoria
eta Historia Saileko katedradura

Euskal Herrian 1879an sortu ziren lehen arte eta lanbide eskolak. Lanbide heziketa lekuko beharrei eta behar ekonomikoei egokitzen hasi zenean jarri ziren abian aipatu eskolak, hau da, modernizazio ekonomikoaren eta sozialaren garaian.

Aski jakina da XIX. mendearen erdialdetik aurrera Bizkaian eta Gipuzkoan industrializazio prozesua bizi izan zela. Erritmo desberdineko prozesua izan zen, eta eremu ekonomiko ugari iraginarazi ziren. Bi lurralde historikoetako fisionomia ekonomiko eta soziala alda-

tu zuen, ezbairik gabe. Industrializazio prozesu hori alderdi garrantzitsua izango da modernizazio zabalago baten barruan, eta beste eskualde europarrekin alderatzeko modukoa. Aldaketa demografikoei, alfabetizazioaren zabalakundeak eta eskolatzeak, hiri handien urbanizazioak, hala nola dinamika sozial berriak, itxura berri bateko gizartea sortuko dute. Modernizazio horretan murgiltzen diren herri eta hiriak erabat aldatuko dira poliki-poliki, batez ere Donostia eta Bilbo. Araba eta Nafarroa modernizazio prozesu horretatik kanpo geldituko dira, eta beren hiriburuetan arte eta lanbide eskola tradizionalak mantenduko dira. Donostiako eskola horiek *behartsuen unibertsitateak* zirela esaten zen. Ezen, lehen formazioa egin ondoren, langile baldintza hobetzeko zuten aukera bakarrik eskola horietara joatea zen.

Testuinguru horretan hezkuntzak zentzu ekonomikoa hartuko du. Ordu arte ez gediak ez irakaskuntzaren ad-

ministrazioak ez zuten aurreikusi alderdi hori. Garaiko berritzaile sozialek behar industrialei egokitutako eskularen beharra ikusten zuten. Berritzaile horiek burgesia hasiberriaren bozeramaileak ziren, eta beren lana beharrezkoa zen esaneko langile gaituek proiektu ekonomikoak, hirigintzak eta industrialak aurrera eramane ziztaten. Zentzu horretan, arte eta lanbide eskolak garai hartako hezkuntza legetatik kanpora ari ziren sortzen. 1970. urte arte Espainiako hezkuntza sistema osoa antolatzen zuten 1857ko Moyano Lege ospetsuak eta Frantziako hezkuntza sistema antolatzen zuten 1833ko Guizot Legeak ez zuten aurreikusi oinarritzko ikasketak ziztuzten neska-mutilek lanbide bat eskuratzeko balioko zuten lanbide ikasketarik. 1924 arte Espainian ez zen ezagutu lanbide heziketari buruzko legerik. Beraz, langileen formazioa legetatik at sortu zen, herrietako eta probintzietako erakundeek bultzaturik.

Ikuspegi orokorretik begiratuta, European ezagutzen ziren arte eta lanbi-

de eskolak, batez ere Frantziako *les grandes écoles* deiturikoak eta Europako beste herrialdeetan zeuden antzekoak, ingeniariak prestatzeko eskolak ziren, edota irakaskuntza tekniko eta komertzialak eskaintzen zituztenak, eta elite profesionala sortzera bideratuta zeuden. Normalean estatua-ren laguntza jasotzen zuten. Ikasleak ez ziren herri klasekoak, horientzat oinarriko formazio orokorra baitzegoen. Formazio horrek prestatuntza pixka batekin lan merkatuan sartzeko aukera ematen zien. Aitzitik, Euskal Herrian sortu ziren eskolak emakumeak eta langileak prestatzera bideratu ziren. Arte eta lanbide eskolak aztertzen baditugu, modernizazio prozesua eta eskulanaren formazioa bat datozela ohartuko gara.

Herri instituzioen eta diputazioen jokoera

Eskola horiek aztertzerakoan ezinbestekoa da diputazioek diru laguntzak emateko garaian izan zuten jokae-

Lehen formazioa egin ondoren, langile baldintza hobetzeko zuten aukera bakarra arte eta lanbide eskoletara joatea zen

ra aztertzea. Izan ere, jokaera hori elementu klabea zen diputazioek udalteekekin zuten harremanean, udaletxeak izaten baitziren horrelako eskolak sortzeko eskaera egiten zutenak. Bizkaiko eta Gipuzkoako diputazioek eskola horien mantenurako aurrera eraman zituzten politikak konparatzen baditugu, zera ikusiko dugu: Bizkaian irizpide orokor batzuk jarraitzen zirela eta diru laguntza gehiago ematen zirela. Era berean, Bizkaiko Diputazioko Heziketa Publikoko Batzordeak jarraitzen bat egiten zuen eskola horien garapena kontrolatuz, ikuskaritzak eginez, eta baita ikasketa eta arauen zenbait plangintzarekin irizpide komunak zituzten plangintza orokorrak eginez ere. Ostera, Gipuzkoari dagokionez, ez zen horrelako politikarik aurrera eraman, nahiz eta diru laguntzak emateko zenbait neurri orokor ezarri zen. Izan ere, diru laguntzak Diputazioaren aurrekontu orokorren baitan zeuden. Horregatik, arazo ekonomikoak zeudenean diru laguntzak ukatu egiten ziren, eta ematen zena ez zen inoiz eskolen aurrekontuen % 50 baino gehiago izaten. Bizkaiko laguntza, aldiz, udalek eskolen mantenurako egiten zuten aurrekontuaren % 50 izaten zen beti.

Gipuzkoako arte eta lanbide eskolen sorrera, Bizkaian bezalaxe, udalen ekimenaren ondotik etorri zen. XX. mendearen lehen herenean gertatutako fenomenoak izan zen. Espero zitekeen moduan, eskola horien banaketak probintziaren industrializazioaren eraginez sortzen ari ziren industria gunee-kin bat egin zuen. Gune horiek hauek ziren: Debagoiena (Bergara, Eibar, Arrasate, Zumarraga eta Elgoibar), Tolosaldea eta Goierrri (Tolosa, Ordizia eta Beasain), Donostialdea, Irun, Hondarribia, Orereta eta Pasaia. Garrantzi gutxiago izango dute Urola bailarako Azpeitia eta Zestoako eskolek. Bizkaian eskola horiek Ezkerraldean pilatu ziren bitartean, Gipuzkoan gehiago zabaltu ziren, herrien neurriagatik, industria ere hedatuago zegoelako eta era askotakoa zelako. Eskola horiek XX. men-

dearen hasieran sortu ziren, Tolosakoa eta Donostiakoa izan ezik. Lehena 1889an sortu zen, eta bigarrena Gipuzkoako industria garapenaren garairik indartsuenean.

Bizkaiari dagokionez, Gipuzkoan gertatzen zen bezala, XX. mendearen lehen herenean indartu zen fenomeno hau. Horrela, eskola ugari sortu ziren, eta gehienak itsasadarren ezkerraldean. Azpimarratzekoa da, Gipuzkoan ez bezala, ikasketa planak industriako langileen formazioan gehiago murgiltzen zirela. Gainera, emakumeentzako lanbideetarako formaziorako ikasketak ere ugariagoak ziren. Kasurik gehienetan etxeko lanekin edo ehungintzarekin lotutako ikasketak ziren, eta ez hainbeste ikasketa komertzialak.

Laburbilduz, eskola horien bilakaerako momentu kritikoa Bizkaiko Diputazioak bildutako informazioen arabera, eskola guztiak ez dira tamaina berdinekoak. Ikasleen portaera, berri- modu horretako beste eskoletako ikasleen antzekoa da. Ikasketei dagokionez, ezin esan daiteke bereziki langileen hobekuntzara bideratutako eskolak zirenik, ez Gipuzkoakoak eta ezta Bizkaikoak ere. Lehen ikasketen ondorengo eskolak zirela esatea egokiagoa da, eta beren programetan aipatzen zirenak baino funtzio apalagoak betetzen zituzten. Hala ere, bazeuden salbuespenak, batik bat eskola garrantzitsuetan eta ikasle gehiago zituztenetan. Bestalde, ikasleen asistentzia falta oso orokortuta zegoen. Eta hala ere, Bizkaian oso kezkatuta zeuden eskolen bateratzearekin eta ikasketa planen erreformarekin. Haatik, eskola guztien eskaera industria eta biztanle aldaketan baitan zegoen. Bizkaia eta Gipuzkoako eskola horiei *txikiak* deitu diegu, Bilbokoarekin eta Donostiakoarekin bereiztearren.

Bilboko Arte eta Lanbide Eskola

Bilboko Arte eta Lanbide Eskola langileak profesionalki prestatzera bideratuta zegoen hasiera-hasieratik. Pa-

blo de Alzola hiriko alkatea eta zentroko zuzendaritza taldeko lehen presidentea izan zen hori hala bultzatu zuena. Eskolaren lehen 50 urteetan izandako bilakaerak argi uzten ditu langileen irakaskuntzan sartu ziren aldaketak eta eskaera sozialari erantzuteko egindako egokitzapenak. Izan ere, lehen esan bezala, aldaketa ekonomiko eta sozial sakonak jasaten ari zen hiria. Lehen 50 urteetako ikasle guztien kopurua batu eta zenbaki hauek ateratzen dira: 56.314 ikasle mutil eta 41.786 ikasle neska, guztira 98.100. Hala ere, ikasketak bukatu zituztenen kopurua jaitsi egiten da: 34.983 ikasle mutil eta 31.887 ikasle neska. Batez beste urtean 1.962 ikasle matrikulatzen ziren, eta horietatik 1.337k bukatzen zuten, hots, % 68k.

Ikasleen datu erlatibo hori ikasketa planen aldaketekin alderatu behar dugu, eta batez ere, eskolak berak bere helburu gero eta sendoagoa lortze bidean egindako egokitzapenekin; hau da, sortzeko gaien langilea hezteko langile espezializatu bihurtuz. Zentzu horretan, instituzio honen bizitza osoko xedea ingeniariaren edo arkitektoaren arteko langileak eta eraikuntza edo industria proiektuaren kudeatzaileak sortzea zen. Goi mailako langileak prestatzeko interes horren isla da 1902an sortu eta 1912 arte iraun zuen *Langileburuen Eskola*. Horrekin, poliki-poliki langileen artean bereiztu egingo zen talde sozial berri bat sortu zen. Eskola honek goi mailako langile horiek prestatzeko proiektuei erantzuten zien, nahiz eta emaitza orokorrak hain nabariak ez izan lehen urteetan. Baina, horrez gain, langileen oinarriko formazioaz ere arduratzen zen, eta aztergai dugun urte tarte horretan indarrean egon zen formazio hori. Hainbat ikasketarako lehen mailetan nabaritzen eskaintza honen arrakasta, eta baita pixkanaka-pixkanaka garatuz joan zen emakumeentzako prestakuntza ere.

Donostiako Eskolak ez bezala, Bilbokoak ez zeukan merkataritza ikasketetako programarik eta ikasketa planik. Izan ere, hirian tradizio handia zuen



Donostiako Arte eta Lanbide Eskola orain dela gutxi arte Correos-en bulegoak egon diren luxuzko eraikinean kokatzen zen, Koldo Mitxelena kulturunearen aldamenean.

Institutu Bizkaitarrean eskaintzen ziren ikasketa horiek, eta Merkataritza Eskola bat ere bazegoen. Bestalde, azpimarragarria da bere bultzatzaileek *arte eta lanbideen bigarren eskola* deituriko eskola ere. San Vicente de Paul Konferentzien ardurapean zegoen eskola honek ikasle asko zituen eta merkataritza ikasketak ere egiten ziren bertan. Soilik azken etapan zegoen formazio horrekin erlazioan tutako ikasgairaren bat. Ikasketa plan nagusiak burdinarekin, harriarekin eta egurrekin lotutako lanbideetako langileen prestakuntzara bideratuta zeuden. Azken etapan mekanika eta elektrizitate ikasketak ere gehitu ziren. Helburu zehatzak zituen eskolak, eta horrek adierazten digu behar sozialen arabera prestakuntza eskaintzen ziela langileei.

Donostiako Arte eta Lanbide Eskola

Donostiako Arte eta Lanbide Eskola hiriko langileen prestakuntzarako erreferentzia gune bilakatu zen urteen poderioz. Bigarren mailako institutuaren (gaur egun Koldo Mitxelena kulturunea) aldameneko luxuzko eraikuntza batean zegoen kokatuta, orain dela gutxi arte Correos-en bulegoak egon diren lekuan. 1872an sortu zen, baina au-

rretik ere saiakerak egin ziren. Hiritarrek horrelako instituzioekiko zuten interesa erakusten digu horrek. 1880. urteko ikasturtea izan zen lehenengoa, Bilboko eskola homonimoa martxan jarri eta hilabete gutxira.

1885eko erreformaren ondotik, Donostiako Eskolan Bilboko Eskolan

Langileen formazioa legeditik at sortu zen, herrietako eta probintzietako erakundeek bultzaturik

ez zegoen atal berri bat ezarri zen: merkataritzarena. Mota horretako eskolen helburua langileak eta artisauek prestatzea zen, eta merkataritza atala ez zegoen horrekin erabat loturik. Dena dela, ezaugarri horrek ikasle kopuruaren handitzea ekarri zuen, hiritarren baldintza sozialak zirela-eta. Bestalde, bi-tartekaritza lanak egiteko langileen formazioak ez zuen arrakastarik izan eskola honetan, nahiz eta ikasketa planetan ikasgai kopurua igo, formazioa bera ere gehiago sakondu eta zenbait espezialitate eskaini. Aztertzen ari garen etaparen amaieran, artean eskola honek bete behar zituen helburuak ez zeuden argi. Lehen irakaskuntzatik zetozen ikasleei edo langileei erantzun behar ote zitzaien zen betiko zalantza. Helburu bikoitz hori etengabeko zalantza izan zen, eta 1924ko legediaren ondoren baino ez da konponduko.

Ikasleen ezaugarriak

Arte eta lanbide eskola gehienetako araudian jasotzen zenaren arabera, 12 urterekin has zitezkeen eskola horietan. Baina adinaz gain, ikasleek beste baldintza bat bete behar zuten: irakurtzen eta idazten jakin behar zuten. Dena dela, kasu askotan *oinarrizko ikasketak prestatzeko* ikastaroak zeuden, eta horrek adierazten du leku guztietan ez zela errespetatzen irakurtzen eta idazten jakin behar hura.

Ikasleen adina datu azpimarragarria da, eskola mota horien bi alderdiri buruzko informazioa ematen baitigu: bata, lehen mailaren ondorengo eskolak zirela; eta bestea, ikasleen banaketa eta sailkapena ikusirik, adin desberdinetako ikasleak biltzen zirela ikasketa berean. Normalean izaera bikoitza izaten zuten eskolak –langileen formazioa eta hobekuntza eskolak-, eta bikoitzasun hori adin kategoriaren arabera zeuden ikasleen ehuneko desberdinek ere adierazten dute. Orokorrean, ikasle gehienak 12 eta 15 urte bitartekoak ziren, matrikulatutako ikasleen % 50 baino gehiago. Datu horrek zera erakusten du: eskola horietan lehen maila-

Ikasleek eskola utzi egiten zuten nahikoa ikasi zutela edo prestatu zirela ikusten zutenean

ko ikasketen jarraipena egiten zela. Era berean, horrek adierazten du “eskola-ume” edo “ikasle” kategorია profesionala zuten ikasleen ehunekoak altua zela. Horrez gain, langileek lan munduan murgiltzeko behar zuten prestakuntza beharrak ere bultzatzen zituen ikasleak eskola horietara.

Bigarren taldea 15 eta 20 urte bitarteko ikasleek osatzen zuten. Orokorrean, gutxi gorabehera ikasle guztien % 35 ziren. Eta azkenik, hirugarren taldean 20 urtetik gorako ikasleak zeuden. Horiek % 15 baino gutxiago ziren, eta ez ziren “eskola-umeak”, langile ikasleak baizik. Ondorioz, ezin esan dezakegu ikasle guztiak berdinak zirenik, ez adinari dagokionez, eta ezta lanbideei dagokienez ere. Argi ikusten da ikasle lanbidea duten 12-15 urtekoen eta lanbide anitzeko gainerako ikasle zaharragoen arteko bereizketa.

Eskola horien bereizgarri bat zera zen: ikasleek eskola utzi egiten zutela nahikoa ikasi zutela edo prestatu zirela ikusten zutenean. Ikasketa plan bateko ikasgai guztiak ikasteko helburua gutxi

batzuek baino ez zuten lortzen. Normalean lehen bi mailak egin ondoren uzten zituzten ikasketak, eta batez beste lau ikasgai egiten zituzten gehienez.

Zentzu horretan, bistakoa da arte eta lanbide eskolen helburuak hainbat herritako industrializazio prozesuaren ondorioz sortzen ziren behar ekonomikoetatik eratzen zirela. Eta noski, zenbait udalek bultzatzen zituzten, langileen eta emakumeen hezkuntza herrikoia eta profesionala sustatzeko. Ikasketa mota hori ikasleen ahalegin pertsonalaren gain gelditzen zen, beraiek baitziren lan baldintza hobekak nahi zituztenak eta beraien egoera soziala hobetu nahi zutenak.

Dena dela, Bilboko eta Donostiako kasuak salbu –non irakaskuntza industrialak, artistikoak eta komertzialak curriculum profesional osatua zuten-, eskola gehienak lehen mailako goi eskolen sare eskasiaren osagarri izan ziren. Arte eta lanbide eskoletako curriculum alfabetizazio grafikora mugatzen zen batez ere. Ikasle gehienek Geometria, Marrazketa eta Aritmetika ikasten zituzten. Modu horretan, lanbide heziketak hezkuntza sistemaren ageriko gabezia ordezkatzeko zuten. Izan ere, garai hartan, lehen mailatik aurrera hezkuntza ez zegoen batere egituratuta, bigarren hezkuntza salbu, horrek beste ikasle mota bat hartzen baitzuen, profesional izatea helburu ez zuena.


Arte eta lanbide eskolek, beraz, industrializazio prozesuan eta geroz eta handiagoa zen modernizazioan burubelari sartuta zeuden Bizkaiari eta Gipuzkoari erantzuna ematen jakin zuten, testuinguru horretan behar zen eskulan profesionalari formazioa emanez. •

Bibliografia

- DAVILA, P. (1997): *Las escuelas de artes y oficios y el proceso modernizador en el País Vasco (1879-1929)*. Leioa. Universidad del País Vasco, Euskal Herriko Unibertsitatea.


Hil ala bizi?

*Bizi, noski!
Eta abentura
askorekin!*



GALTZERDI SUIZIDA

Mariasun Landa
Antton Olariaga



Denok ez gara berdinak...



igarkizun berri-berriak

*eta marrazki ikusgarriak
ipuin zoragarri bat*

Mintzo naz isilik...

Juan Cruz Igeñalde
Lorena Martínez




dona dona saila

*Schaska dute belarrezko
eta zerna bebarrezko.
Kantatzen dute alai
banaka eta bananaka ere bai.*

elkar

BETKO TARTALO
JANTZI BERRIEKIN



MARI SAILA



elkar

Portuetxe, 88 bis • 20018 Donostia • Tel. 943 310 267 • Fax 943 310 216 • www.elkarlanean.com

euskal herriak bere eskola

euskal herriak bere eskola

behar du



ikaskuntza eta herrikuntza gizaritaren
jarraituerarako motore direlako,
hezkuntza euskal herriak aurrera egin
dezan irakoerako bat delako.

1

euskal herriak bere eskola

nahi du



jai giroan zein aldarrikapenean,
kalean zein ikastetxean, euskal herriko
irakasle, guraso, ikasle eta herritarrok
euskal hezkuntza sistema propioa
izateko horrendatzea ulertzen dugu.

2

euskal herriak bere eskola

izateko eskubidea du



herri bat garen alderik, hezkuntza
sistema bat dagokigu.
guk geuk erabakitakoa, guk geuk
kudeaturikoa, euskalduna eta
autonoma, beretzalea eta
demokratikoa.

3

euskal herria bere eskola

eraikitzen ari da



herri herri eta ikastetxez ikastetxe,
oztopo guztien gainetik, euskal herriko
eskola gauzatzen ari gara eta eskolarek
ekinez, ikasle, irakasle, guraso eta
herritarrok bat eginak, euskal
hezkuntza sistema eskuratu dezakegu.

4

BAT EGIN EZAZU!

Zure sinadura emanaz
Hizaldietara joanez.

Agiria banatuz

Mezua lau haizetara zahalduz.

HARREMANETAN JARTZEKO:

661-003038 (Araba)

679-319687 (Bizkaia)

696-200570 (gainontzeko herrialdeak)